

**FARMAZIA-BULEGOEN BIDEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORREKO OSASUN SAILAREKIN FARMAZIA-
PRESTAZIOA ETA OSASUN-LANKIDETZA GAUZATZEKO BALDINTZAK
EZARTZEN DITUEN ITUNA**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 25a

ALDERDI BATETIK, Osasun Saileko sailburua, Lehendakariaren irailaren 7ko 27/2020 Dekretuaren bidez izendatua (2020ko irailaren 8ko EHAA, 177. zk.), Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62. artikuluan eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ETA BESTETIK, Miguel Ángel Gastelurrutia Garralda jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseiluko Presidentea eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Presidentea; Juan Uriarte García-Borreguero, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Presidentea; eta Milagros López de Ocariz López de Munain, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Presidentea. Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia-bulegoen titularren izenean eta ordezkaritzan jarduten dute, korporazioen estatutuetan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen maiatzaren 30eko 2065/1974 Dekretuaren 107.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean, Sendagaien eta Osasun-produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari

buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legean ezarritakoarekin koordinatuta.

HAU ADIERAZTEN DUTE

2001eko apirilaren 27tik, bi alderdiek sinatuta daukate Prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzaren sanitarioa farmazia-bulegoen bidez gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen Ituna, eta Gipuzkoako Farmazia Bulegodunen Elkarte (AGEOFAR) eta Bizkaiko Farmazia Bulegoen Elkarte Profesionala (PROFARBI) atxiki zitzaizkion. 2006ko apirilaren 3an, 2001ean sinatutako Ituna aldatzeko akordioa sinatu zen.

2013an Euskadin errezeta elektronikoa ezarri zen, 2018an Estatuan interoperabilitatea, 2022ko irailean OTI digitala martxan jarri zen eta prestazio farmazeutikoari buruzko araudia aldatu egin da. Horregatik, berritasun horiek jasotzen dituen Itun berri bat sinatzea erabaki da. Aurreko Itunean zeuden Eranskinak mantendu dira, eta, gainera, farmazia-bulegoa osasun-sistemaren partaide gisa bultzatu nahi izan da.

Ondorioz, bi alderdiek, AFARE-EUSFARE Euskadiko Farmazien Elkartearen sinadurarekin, eta Gipuzkoako Farmazia Bulegodunen Elkartearenarekin (AGEOFAR) eta Bizkaiko Farmazia Bulegoen Elkarte Profesionalarenarekin (PROFARBI), Itun hau izenpetzea erabaki dute, klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

1. ITUNAREN XEDEA

1.1. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) legez ezarritako farmazia-bulegoek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin profesionalki elkarlanean aritzeko baldintzak finkatzea da Itun honen xedea, Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoan jasotako gizakientzako sendagaiak (aurrerantzean, sendagaiak), formula magistralak eta alergien kontrako banakako txertoak eta banakako txerto bakterianoak dispentsatzeari dagokionez.

1.2. Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoan sartutako produktu sanitarioak (efektu eta osagarriak) Itun honen xede izango dira soilik Osasun Sailak farmazia-bulegoen bidez dispentsatzea erabakitzen duenean. Kasu horretan, Itunean ezarritako baldintza orokorren eta alderdien artean berariaz ituntzen diren baldintza espezifikoek arabera dispentsatutako dira.

1.3. Osasun Sistema Nazionalaren produktu dietetikoaren prestazioan sartutako dietoterapiko konplexuak eta etxeko nutrizio enterala Itun honen xede izango dira soilik Osasun Sailak farmazia-bulegoen bidez dispentsatzea erabakitzen duenean. Kasu horretan, Itunaren E Eranskinean ezarritako baldintzen eta alderdien artean berariaz ituntzen diren baldintza espezifikoek arabera dispentsatuko dira.

1.4. Zigilu-kupoirik gabeko inhalazio-ganbera pediatrikoak G Eranskinean ezarritako baldintzetan dispentsatuko dituzte farmazia-bulegoek.

1.5. Ez dira Itun honen xede izango atzerrira doazen pertsonentzako txertoak, malariaren kontrako kimioprofilaxiak edo beste edozein tratamendu profilaktiko.

1.6. Ez dira Itun honen xede izango txertaketa sistematikoko programetan sartutako txertoak, ez eta arrisku-talde espezifikoek zuzendutakoak ere; izan ere, Osasun Sailaren kontura erosi eta ematen dira, eta ez dira errezeta bidez finantzatu.

1.7. Itun honen xede dira Osasun Sailarekin hitzartutako farmazia-arretako eta/edo farmazia-zerbitzu profesionalak emateko programak. Berariazko hitzarmenetan zehaztuko dira, alderdiek berariaz Itundutako baldintzetan. Horien bidez, farmazia-bulegoek sendagaien zentzuzko erabileran parte hartzea sustatuko da.

1.8. Itun honek farmazia-bulegoak Osasun Sisteman partaide bihurtzen ditu agente laguntzaile gisa, gainerako asistentzia-mailekin koordinatuz. Farmazialarien Elkargo Ofizialek farmazia-bulegoetara zabalduko dute Itun honen edukia, eta hura betetzen dela zainduko dute.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Itun honek izaera administratiboa du, eta klausuletan eta Eranskinetan ezarritakoaren arabera arautuko da. Zuzenean aplikatuko dira Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoa oro har eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren araudi sanitarioa, eta EAeko araudia, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 679/2016 Europako Erregelamendua, eta aplikagarriak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen printzipioak.

3. DISPENTSAZIOAREN EZAUGARRIAK

EAEn legez ezarritako farmazia-bulego guztietan dispentsatutako dira, Itun honetako 1. klausulan ezarritako baldintzei jarraikiz, sendagaiak, formula magistralak, alergieen kontrako banakako txertoak eta banakako txerto bakterianoak, produktu dietetikoak eta efektu eta osagarriak (inhalazio-ganbera pediatrikoak barne); kanpoan geratuko dira, ordea, 14. klausulan xedatutakoa aplikatuz baztertuta dauden farmazia-bulegoak. Farmazia-bulegoetako giza baliabideei buruzko ekainaren 3ko 129/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera dispentsatutako da beti.

Dispentsazioaren baldintzak eta errezetaren eta preskripzio elektronikoaren baliozkotasun-baldintzak A Eranskinean bildutakoak dira.

Produktu dietetikoak dispentsatzeko baldintzak E Eranskinean daude jasota; F Eranskinean gerneru-inkontinentziarako xurgatzaileak dispentsatzeko baldintzak arautzen dira, eta G Eranskinean, berriz, inhalazio-ganbera pediatrikoenak.

4. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Itun honen ondorioetarako, errezeta terminoaren barruan sartzen dira paperezko mediku-errezetak (aurrerantzean, paperezko errezeta) eta mediku-errezeta elektronikoak (aurrerantzean, errezeta elektronikoak).

Osasun Sailak, Farmazialarien Elkargo Ofizialen bitartez, behar bezala dispentsatu eta fakturatutako errezeten zenbatekoa ordainduko die farmazia-bulegoei, honako baldintza ekonomiko hauetan:

- 4.1. Sendagaiak eta efektu eta osagarriak legez baimendutako prezioen arabera baloratuko dira, fakturazio-hilabeteari dagokion Izendegi Ofizialean agertzen direnen arabera.

Izendegi ofizialean duten legez baimendutako fakturazio-prezioek farmazia-bulegoetan hornidura bermatzen ez duten talde homogeneoen hornidura-gabezien kasuan, ezarritako fakturazio-prezioa baino prezio handiagoan fakturatzeko eskatu ahal izango dute Farmazialarien Elkargo Ofizialek. Osasun Sailak onartutako intzidentzien barne dauden sendagaiak, baldin eta errezetak behar bezala izapidetuta badaude, Osasun Sailak fakturazio-hilabete horretan baimendutako prezio berriaren arabera ordainduko dira.

Justifikatutako premia larri baten ondorioz, farmaziak Izendegi ofizialean legez baimendutako fakturazio-prezioa baino prezio handiagoa duen sendagai baten ontzia dispentsatu badu, botikariak behar bezala izapidetu beharko du errezeta. Kasu horietan, sendagaiaren prezioaren eta baimendutako prezioaren arteko aldea ordaintzeko eskatu ahal izango dio farmaziak Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzari, erabiltzailearen ekarpena bi prezioetatik deskontatu ondoren. Farmaziak kasu bakoitzaren urgentzia justifikatu beharko du, bai sendagaiaren izaeragatik, bai erabiltzaileak sendagaia beste farmazia-bulego batean ezin eskuratu izanagatik.

- 4.2. Formula magistralak, banakako txertoak eta produktu dietetikoak, Osasun Sistema Nazionaleko paperezko errezeta edo errezeta elektronikoko bidez dispentsatzen direnean, B Eranskinean eta E Eranskinean, hurrenez hurren, ezarritako prozeduraren arabera baloratuko dira.
- 4.3. Gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak, Osasun Sistema Nazionaleko paperezko errezeta edo errezeta elektronikokoaren bidez dispentsatzen direnean, F Eranskinean jasotakoaren arabera baloratuko dira.
- 4.4. Inhalazio-ganbera pediatrikoak, Osasun Sistema Nazionaleko paperezko errezeta edo errezeta elektronikokoaren bidez dispentsatzen direnean, G Eranskinean ezarritakoaren arabera baloratuko dira

Hori guztia Farmazialarien Elkargo Ofizialek Osasun Sailarekin lor ditzaketen akordioei kalterik egin gabe.

5. FAKTURAZIO PROZEDURA

Dispentsazioen fakturazioa mekanizazio informatiko bidez egingo da, C Eranskinean adierazitako prozeduraren arabera.

Hilabete naturalen arabera fakturatuko dira dispentsazioak, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiengatik izan ezik.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek C Eranskinean jasotako datu guztiak grabatuko dituzte, baita etorkizunean Itundu daitezkeenak ere.

Zigilu-kupoia eta identifikatzaile berdingabea, biak mantentzen diren bitartean, kupoi orriak eta paperezko errezetak galdu edo hondatzen diren ohiz kanpoko kasuetan, horien ordez baliozkoak izango dira paperezko errezeten aurrealdearen eta kupoi orrien irudi digitalizatuak, D Eranskineko 6. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Paperezko errezetak edo zigilu-kupoi orriak digitalizazio-prozesua baino lehen galtzen edo hondatzen diren ohiz kanpoko kasuetan, D Eranskineko 5. apartatuan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek paperezko errezeten eta dispentsazio elektronikoen mekanizazioan lortutako datu guztien kalitatea bermatu beharko dute; horretarako, prozesuaren kalitatea kontrolatzeko programa bat ezarriko dute. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak behar diren neurriak hartuko ditu dagozkion egiaztapenak egiteko.

Dagoeneko digitalizatu diren kupoi edo errezetak ez zaizkie itzuliko farmazia-bulegoei.

6. ORDAINKETA PROZEDURA

Legez ezarritako edo hitzartutako fakturazio-prezioekin baloratutako fakturatik, legediaren arabera erabiltzaileei dagokien ekarpena kenduko da.

Lortutako zenbateko likidotik, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen deskontuak aplikatuz dagokion kopurua deskontatuko da.

Hori guztia Osasun Sailak Farmazialarien Elkargo Ofizialekin lor ditzakeen akordioei kalterik egin gabe.

Ordaintzeko modua eta epea D Eranskinean zehaztutakoak izango dira.

7. DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA

Dispentsazioetatik eta horien fakturazio-prozesutik datozen datuak indarrean dagoen osasun arloko eta datuen babesari buruzko araudiaren mende egongo dira.

Ez Farmazialarien Elkargo Ofizialek, ez farmazia-bulegoek, ez Itun honek arautzen duen prestazio farmazeutikoan parte hartzen duten enpresa kontratatuek, ezta horien ordezkatuak ere, ezingo dizkiete hirugarrenei eman dispentsazioetatik eta fakturazio-prozesutik datozen datuak. Salbuespen dira sendagaien trazabilitatea edo beste helburu batzuk lortzeko legezko araudiaren bidez araututako kasuak, eta beti ere arauak ezarritako prozeduren eta irismenaren arabera.

Errezetaren gorputz nagusiarekin batera doan pazientearentzako jarraibideen bolantea edo tratamendu aktiboaren orria salbuespen bezala farmazia-bulegoaren esku geratzen badira, farmazia-bulegoak modu eraginkorrean suntsitzen direla bermatu beharko du.

8. BETETZEA ETA APLIKATZEA

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde-eremu bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoaren (EAEFBM) jarduketa delegatua duten Farmazia Lurralde Batzorde Mistoak sortuko dira.

8.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAZIA BATZORDE MISTOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoak Ituna betetzen eta aplikatzen dela zainduko du, administrazioaren ikuskapen-ahalmena eragotzi gabe, eta proposamenak egin ahal izango dizkio Osasun Sailari. Batzordeak honako osaera eta funtzio hauek izango ditu:

8.1.1. Osaera

Batzordea honela osatuko da:

- A. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eta Farmazialarien Elkargo Ofizialetako ordezkari kopuru berdina izango du eta presidentea Osasun Sailburuak izendatuko du.
- B. Idazkaria: presidenteak izendatua; hitza izango du, baina bozik ez.

8.1.2. Funtzioak

- Itun hau betetzen dela zaintzea eta hura interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- Farmazia lurralde-batzordeen erabakien aurka aurkezten diren erreklamazioak eta berdinketagarriko akordio ezak ebatzea.
- Itunaren helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren aldaketa zehatzak aztertzea eta ebatzea.
- Batzordeak berak agindutako zeregin zehatzak garatzeko lantalde teknikoak eratzea.
- Errezeta elektronikoa behar bezala erabiltzen dela bermatzea eta prestazio farmazeutikoa modu seguru eta efizientean erabiltzera bideratutako hobekuntzak sustatzea.
- Farmazia-bulegoek Ituna betetzen ez duten egoerak aztertzea, 14. klausulan ezarritako bazterketa dakartenak barne.
- Eranskin guztiak berrikustea eta 11. klausulan aurreikusitako arau-aldaketetara egokitzea.

8.1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoaren (EAEFBM) araubidea

EAEFBM bi alderdietako batek behar bezala justifikatutako arrazoiengatik eskatzen duenean bilduko da. Erabakiak bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko dira, eta kalitateko botoa presidenteak izango du.

EAEFBMk Itunaren interpretazioari buruz emandako ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

8.2. FARMAZIA LURRALDE BATZORDE MISTOAK

8.2.1. Osaera:

Dagokion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzako eta Farmazialarien Elkargo Ofizialeko ordezkari kopuru berdinek osatuko dituzte batzordeak, eta presidentea Osasun Saileko kideetako bat izango da.

8.2.2. Funtzioak

Batzorde horiek, bakoitzak bere demarkazioan, errezetak fakturatzean eta erregularizatzean sortzen diren intzidentziak erabaki beharko dituzte, eta intzidentzia horien berri eman beharko diote EAEFBMri, kasuan kasuko aktak bidalita. Era berean, Itun hau betetzen dela zainduko dute, eta horren guztiaren berri emango diote EAEFBMri, beharrezko diren

lankidetzak-akordioak proposatuz, bai eta hitzarmen honen aplikazioa hobetzeko egokitzat jotzen dituzten neurrien berri ere.

8.2.3. Lurralde-batzorde mistoen araubidea:

Bi alderdietako batek, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik eskatzen duenean bilduko dira batzordeak. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, EAEFBMri igorriko zaizkio txosten argigarri batekin, eta hark erabakiko du zer den bidezkoa.

9. ERANSKINAK

Ondoko Eranskinak Itunean sartuta daudela ulertuko da, eta Itunaren parte izango dira: dispentsazioaren ezaugarriak (A), formulazio magistrala eta banakako txertoak(B), fakturazio prozedura (C), ordainketa prozedura (D), produktu dietoterapiko konplexuak eta etxeko nutrizio enterala (E), gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak (F) eta inhalazio-ganbera pediatrikoak (G).

10. ITUNAREN IRAUNALDIA, LUZAPENA ETA DENUNTZIA

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera izango du eragina, eta 4 urteko iraupena izango du. Hitzarmen hau luzatu ahal izango da 4 urteko aldi bakar batez, baldin eta alderdietako batek ez badu amaiera mugaeguna baino hiru hilabete lehenago denuntziatzen. Itunaren sinatzaileek, hasieran aurreikusitako bukaera epea amaitu aurretik edozein unetan, Ituna beste lau urtetarako luzatzea edo Ituna azkentzea erabaki ahal izango dute aho batez.

Denuntzia idatziz egin beharko da, eta beste alderdiari modu fede-emaile baten bidez jakinarazi beharko zaio.

Herritarrei ematen zaien Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoa eten ez dadin, Itun hau aplikatzen jarraituko da ordezkatzen duen Ituna edo araudia indarrean jarri aurreko hilabeteko azken egunera arte, nahiz eta 11. klausulan ezarritakoaren arabera iraungi edo denuntziatua izan.

Itun honen Eranskinak modu independentean denuntziatu ahal izango dira, eta Eranskinen baldintzen denuntziak ez die eragingo klausula orokorren testuari, ez eta Itunaren gainerako Eranskinei ere. Ituna edo bere luzapena iraungi baino hiru hilabete lehenago egingo da denuntzia.

11. ITUNAREN BALDINTZAK ALDATZEA

11.1. Arau-aldaketak gertatuko balira eta horiek Itun honen baldintzei eragingo balie, indarrean jartzen direnetik aplikatuko dira, eta alderdiek Ituna aldatzeko ahalmena izango dute. Hilabeteko

epean akordiorik lortzen ez bada, alderdietako edozeinek denuntziatu ahal izango du, eta Ituna iraungi egingo da denuntzia egin eta bi hilabetera.

11.2. Itun honetako baldintzei eragiten ez dieten arau-aldaketak indarrean jartzen direnetik aplikatuko dira, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Ituna aldatzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoak Itun honen Eranskinak arau-aldaketa horietara egokitu ahal izango ditu.

12. LARRIALDIETAN PAZIENTEEN DATUAK EMATEA

12.1. Dispentsatu zaizkien sendagaiak kalte egin diezaieketen pazienteen identifikazio eta lokalizazio zereginetan farmazia-bulegoekin lankidetzan aritzeko prest dagoela adierazten du Osasun Sailak:

- a) Osasuna arriskuan jar dezaketen medikazio-akatsak detektatzen direnean.
- b) Dispentsatu ondoren, sendagaiak merkatutik kentzeko, immobilizatzeko edo alerta sanitarioko beste edozein neurri hartzeko agindua dagoenean.

12.2. Zeregin horietan laguntzeak ez du esan nahi, inola ere, Osasun Sailak erantzukizuna bere gain hartzen duenik, ezta pazienteak lokalizatzeko farmazia-bulegoari legokiokeen erantzukizuna salbuesten edo gutxitzen denik ere.

13. ERREZETA ELEKTRONIKOAN INTERBENTZIOAK

Sortzen diren beharren arabera eguneratuko den errezeta elektronikoaren eskuliburuan adierazitako prozedurari jarraitu beharko dio errezeta elektronikoan egindako interbentzio tekniko orok.

Interbentzio bat egin behar den bakoitzean, behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie errezeta elektronikoan inplikaturako eragile guztiei, sor daitezkeen arriskuak balioesteko eta onartzeko.

14. ITUNA EZ BETETZEA

Osasun Sailak egoki irizitako neurri zuzentzaileak ezarriko dizkie Itun hau betetzen ez duten farmazia-bulegoei, dela zigor ekonomikoak, dela Itun honetatik aldi baterako kanpo uztea.

Farmazia-bulegoek, indibidualki, Itun hau betetzen ez dutela ulertuko da honako jokabide hauetakoren bat dutenean:

- a) Dispentsazioetatik edo horien mekanizaziotik datorren informazioa hirugarrenei ematea edo Itun honen 7. klausulan ezarritakoa urratzea.
- b) Dispentsazioan edo fakturazioan iruzur egitea.
- c) Farmazia-bulegoak prestazio farmazeutikoa gauzatzeko egiten duen jardueran irregulartasunak, zuhurtziagabekeriak edo zabarkeriak egitea, kontrolik ez egitea eta arretarik ez izatea barne.
- d) Itun honetan ezarritakoa larriki urratzen duen beste edozein ekintza.

Hori guztia, farmazia-bulegoari legozkiokeen bestelako zehapenak eta Osasun Sailari zein erabiltzaileari eragin ahal izan dizkien kalte-galeren ordaina emateko betebeharrak gain.

KLAUSULA GEHIGARRIAK

1. Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoan, farmazia-bulegoek EAEko Sistema Sanitarioan agente gisa duten integrazio-maila sendotzeko eta handitzeko konpromisoa hartu dute Itun honen sinatzaileek. Horretarako, gizarteari zuzendutako zerbitzuak emango dituzte, sendagaien erabilerari, prebentzioari eta osasunaren sustapenari dagokienez, eta farmazia-arretako programak garatuko dituzte, gainerako gizarte eta osasun zerbitzuekin koordinatuta.
2. Sendagaien zentzuzko erabilera hobetzeko, farmazia-bulegoek konpromisoa hartzen dute Osasun Sailak ezarritako farmazia-politiken arabera jarduteko, farmazia EAEko sistema sanitarioan integratutako agentea dela aintzat hartuta.
3. Sendagaien erabileran segurtasuna hobetzeko, farmazia-bulegoek konpromisoa hartzen dute farmakozaintza-programetan aktiboki parte hartzeko, eta, oro har, tratamenduen jarraipena optimizatzerako bideratutako beste proiektu batzuetan laguntzeko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

A ERANSKINA

DISPENTSAZIOAREN EZAUGARRIAK

1. EZAUGARRI OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kargura, Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoaren barnean egonik Sistema Sanitario Publikoko errezeta elektronikoa edo Osasun Sistema Nazionalaren errezeta ofizialetan (aurrerantzean, paperezko errezeta) preskribatutako sendagaiak eta efektu eta osagarriak soilik dispentsatuko dira, baldin eta indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizun orokorrek eta Itun honetan eta har daitezkeen akordioetan zehazki ezarritakoekin bat badatoz. Interoperabilitateko preskripzioak EAEko arauen arabera arautzen dira, bai dispentsatzean, bai fakturatzean.

Produktu dietetikoak eta inhalazio-ganbera pediatrikoak E eta G Eranskinetan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera dispentsatutako dira.

Farmazialariak behartuta daude dispentsazioa burutzera, erregelamenduz ezarritako ordutegiaren barruan eta larrialdi-zerbitzuen kasuan, baldin eta onuradunak une horretan erabilgarria den kreditudun preskripzio elektronikoa aktibo bat badu, edo errezeta ofizial bat aurkezten badu paperean, eta bi kasuetan indarrean dagoen araudian eta Eranskin honetan adierazitako baliozkotasun-baldintzak betetzen baditu, eta dagokion ekarpena ordaintzen badu.

Farmazia-bulegoetan honela jokatu behar da:

Pazientea, edo, hala badagokio, hura ordezkatzeko duen pertsona farmazia-bulegora bertaratzea (1718/2010 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, mediku-errezetari eta emateko aginduei buruzkoa), eta osasun-txartel indibidual fisiko edo digitalaren (aurrerantzean, OTI) edo prestazio farmazeutikoa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen agiri baliokidearen bidez pazientearen identifikatzea ezinbesteko baldintza izango da beti, bai elektronikoki edo paperezko errezeten bidez dispentsatzeko, bai pazientearen datuei lotuta dauden errezeta elektronikoko zerbitzuetara sartzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Pazientearen tratamendu aktiboaren orrian pazientearen identifikatzeko barra-kodea ageri bada soilik salbuetsiko da pazientearen edo hura ordezkatzeko duen pertsona farmazia-bulegora nahitaez bertaratu behar izatetik.

Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoaren onuraduna, edo haren ordezkaria, honela identifikatuko da: Pazientearen OTI fisikoaren, Osasun Sailak ezartzen duen formatu digitala duen OTIaren, edo farmazia-prestazioa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen agiri baliokidearen bidez.

Tratamendu aktiboaren orrian pazientea identifikatzeko barra-kodea agertzen bada, barra-kode horren irakurketa optikoak OTIa ordeztu ahal izango du errezeta elektronikoko zerbitzura sartzeko orduan.

Elektronikoki dispentsatzeko pazientea zalantzarik gabe identifikatuko da OTIaren edo prestazio farmazeutikoa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen agiri baliokidearen bidez. Farmazialaria OTIaren irakurketa elektronikokoaren bidez eta farmazia-bulegoan instalatutako ekipamenduetatik soilik sartu ahal izango da elektronikoki dispentsatzeko behar diren datuetata.

Pazienteak eskatzen dituen eta une horretan kreditu emangarria duten preskripzio elektronikoko aktiboak baino ez ditu dispentsatuko; berehala itzuliko dio osasun-txartela titularrari edo hura ordezkatzeko pertsonari, eta ezin izango da haren formatuetako batean ere gorde OTIa farmazia-bulegoan.

Prestazio farmazeutikorako eskubidea egiaztatzen duen agiri baliokidea duten erabiltzaileen kasuan, baldin eta agiriak irakurketa elektronikorako elementurik ez badu, agirian datorren aseguru-zenbakia tekleatuko da zerbitzua eskuratzeko, eta erabiltzailea zalantzarik gabe identifikatuko da.

Aurreko puntuan jaso ez diren egoeretan, OTIaren zenbakia tekleatzea behar bezala justifikatu eta egiaztatutako kontingentzia egoeretan soilik baimentzen da.

Dispentsatu aurretik, paperezko errezetan edo errezeta elektronikotan behar bezala dispentsatzeko baldintza guztiak jasotzen direla egiaztatuko da, bai mediku-errezetei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak, bai Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bere eskumenen esparruan horri buruz xedatzen dituenak.

Dispentsatutako produktuak pazienteari edo haren ordezkariari ematen zaizkion unean erregistratuko dira dispentsazioak errezeta elektronikoko sisteman; horretarako, dispentsatutako ontzi bakoitzaren kode nazionalaren irakurketa optikoa egingo da.

Tratamendu aktiboaren orrian pazientea identifikatzeko barra-kodea duten pazienteen kasuan, ez da derrigorrezkoa izango dispentsatutako produktuak dispentsazioa erregistratzerakoan ematea. Kasu horietan, dispentsazioa erregistratu ondoren eman ahal izango dira produktuak, baina ez aldeztu aurretik.

Praktika horretatik erator daitezkeen bestelako zehapenak alde batera utzi gabe, ez dago baimenduta Osasun Sailaren kontura dispentsazioak simulatzea —ez elektronikoki, ez paperezko errezetetan— aurretiazko errezetarik gabeko salmentak erregularizatzeko, ezta finantzatu gabeko errezetetan alde aurretik erabiltzaileei egindako dispentsazioetako ordainketa itzultzeko ere.

Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen errezeten kasuan, arrisku horren babesa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari badagokio eta Osasun Sistema Nazionaleko lan-istripu edo gaixotasun profesional eredu ofizialean preskribatuta badaude soilik arduratuko da Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila horiek ordaintzeaz.

Dispentsazio elektronikoko prozesuan gertatutako intzidentzia guztiak lehen mailako euskarri-zerbitzuari (Elkargoaren EAZ) jakinaraziko zaizkio, intzidentziak kudeatzeko prozeduran deskribatzen den bezala.

2. ORDEZKAPENAK

Farmazialariak sendagaiak, efektu eta osagarriak eta produktu dietetikoak ordeztzen dituenean, indarrean dagoen araudia beteko da.

Orobat, ordezkapen horiek dakartzaten formalitateak errezetetan adieraziko dira, eta ordezkapenaren arrazoia edo kausa adieraziko da, indarrean dagoen araudiak ezartzen duena alde batera utzi gabe. Eginbide hori ez da beharrezkoa izango nahitaezko ordezkapenen kasuan.

Pazienteei tratamendua betetzen jarraitzea errazteko, Espainiako izen ofiziala (DOE) erabiliz egindako preskripzio baten aurrean, farmazialariak pazienteak normalean kontsumitzen duen aurkezpen komertzial bera dispentsatzen jarraituko du (betiere PSP + BEZ-a ezarritako prezioaren berdina edo txikiagoa bada), eta hori ezinezkoa bada, egindako aldaketaren berri eta dagozkion jarraibideak behar bezala emango zaizkio erabiltzaileari.

3. ERABILTZAILEAREN EKARPENA

Prestazio farmazeutikorako eskubidea duten erabiltzaileek sendagaien errezetak ordaintzeko egin behar duten ekarpenaren zenbatekoa indarrean dagoen legerian ezarritakoa izango da; ekarpen hori bera aplikatuko zaie formula magistralei, banakako txertoei eta Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutikoaren barne dauden produktu sanitarioei.

Prestazio farmazeutikorako eskubidea egiaztatzen duen agiririk aurkezten ez duten erabiltzaileek zenbateko osoa ordainduko dute.

Errezeta elektroniketan zein paperezko errezetetan, farmaziak dispentsatzeko unean erabiltzaileak duen ekarpen-kodea (TSI kodea) telematikoki kontsultatuko du. Paperezko errezetan agertzen den TSI kodea eta telematikoki kontsultatutako informazioa ez badatoz bat, azken hori gailenduko da. Elektronikoki kontsignatutako TSIdun paperezko errezeten kasuan, TSla ezin bada telematikoki egiaztatu, inprimatutakoa gailenduko da.

Mugaldeko herritarren eta Europako osasun-txartela duten herritarren kasuan, ez da egiaztatuko haien TSI kodea. Indarrean dagoen araudiaren arabera, erabiltzaile horiek %50 ordainduko dute, pentsiodun direla egiaztatzen duen agiria aurkezten dutenek izan ezik; horiek %10 ordainduko dute.

Osasun Sailak ekarpen-muga duten erabiltzaileen ekarpen erreal eta teorikoaren arteko diferentzia ordainduko du.

4. FAKTURATU DAITEZKEEN ERREZETAK

4.1. Zigilu-kupoia eta identifikatzaile berdingabea, biak mantentzen diren bitartean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kargura fakturatu ahal izango dira Izendegi Ofizialean dauden sendagaien eta efektu eta osagarrien errezetak, elektronikoki edo Osasun Sistema Nazionaleko paperezko errezeta bidez preskribatutakoak, indarrean dagoen araudiarekin bat badatoz eta zigilu-kupoia badute. Era berean, Osakidetzako errezeta-eredu ofizialean edo Osakidetzako preskripzio elektronikoa preskribatutako produktu dietetikoaren errezetak soilik fakturatu ahal izango dira, beti ere baldin eta Osasun Sailak farmazia-bulegoen bidez dispentsatzea erabaki badu eta zigilu-kupoia badute.

Itun honen B Eranskinera egokitzen diren formula magistralen errezetak fakturatu ahal izango dira.

Banakako txertoen errezetek eta inhalazio-ganbera pediatrikoek dispentsazioa egiaztatzen duen euskarria izan beharko dute.

Formula magistralen, banakako txertoen, produktu dietetikoaren eta inhalazio-ganbera pediatrikoaren paperezko errezetak edo preskripzio elektronikokoak, B, E eta G Eranskinetan jasotako ezaugarrietara egokitzen badira eta Osasun Sailak finantza ditzakeenak badira soilik dispentsatuko dira Osasun Sailaren kontura.

4.2. Indarrean dagoen araudiaren arabera Zerbitzu Sanitarioen Ikuskaritzaren ikus-onespena (bisa) behar duten errezetak ikuskaritzaren ikus-onespena badute soilik dispentsatuko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura. Ikuskaritza bisaren data, edo baimen sanitarioarena, dispentsazio-dataren berdina edo lehenagokoa izan beharko du. Preskribatutako eta baimendutako

ontzi kopurua ez badatoz bat, baimen sanitariokoa edo bisa lehenetsiko da, betiere produktu mota bakoitzerako arauak baimentzen duen gehieneko kopurua gainditzen ez bada.

4.3. Indarrean dagoen araudiaren arabera, Osasun Sistema Nazionalaren prestazio farmazeutiko edo dietetikoaren parte ez den edozein produktu mota agintzen duten errezetak ezin dira fakturatu, nahiz eta Ikuskaritzaren ikus-onetsia izan, G Eranskinean ezarritakoa ezik.

4.4. Paperezko errezeta bakoitzean sendagaien, efektu eta osagarrien edo formula magistralen ontzi bakarra dispentsatu ahal izango da, indarrean dagoen araudian jasotako kasuetan izan ezik.

Farmazia-bulego bidez ematen badira:

- Produktu dietetikoak, gehienez ere lau ontzi, hilabeteko tratamendua gainditu gabe.
- Gernu inkontinentziarako xurgatzaileak, gehienez ere lau ontzi, hiru hilabeterako behar den kopurua gainditu gabe.

4.5. Osasun Sailak arautuko du dispentsazio elektronikoko bakoitzean gehienez eman daitezkeen ontzien kopurua.

4.6. Farmazialariek ez dute errezetarik dispentsatutako haren baliozkotasunaren inguruko arrazoizko zalantzak sortzen direnean.

4.7. Paperezko errezetak dispentsatzeko, preskripzioan nahitaezko datuak ageri direla egiaztatuko da, indarrean dagoen legediaren arabera.

5. EGOERA BEREZIAK

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, modu berezian, baimen sanitarioa edo antzeko kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu dispentsazio farmazeutikorako. Neurri horiek eraginkortasunez ezartze aldera, behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkie Farmazialarien Elkargo Ofizialei.

6. DISPENTSAZIOEN BALIOZKOTASUNA

Itun honetan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten farmazia-bulegoek egindako dispentsazioak izango dira baliozkoak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ordaindu ahal izateko.

6.1. BALIOZKOTASUN-EPEA

6.1.1. Paperezko errezetek 10 egun naturaleko baliozkotasun-epea izango dute, preskripzio-datatik hasita, edo, azaltzen denean, preskriptoreak aurreikusitako dispentsazio datatik hasita. Banakako txertoen paperezko errezeten kasuan, epe hori 90 egunera luzatzen da. Ikus-onespena behar duten sendagaien edo produktu sanitarioen kasuan, paperezko errezetaren baliozkotasun-epea kontsignatutako azken datatik aurrera zenbatuko da.

6.1.2. Osasun Sailak ezarriko du preskripzio elektronikoak dispentsatzeko epea.

6.2. FAKTURATUTAKO ERREZETAK BALIOGABETZEKO ARRAZOIAK

6.2.1. Honako egoera hauetan Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ez ditu errezetak bere gain hartuko, eta beraz, erregularizatu egingo ditu:

- Dispentsazioaren fakturazio aldi naturala den hilabetea eta hurrengo hilabetetik kanpo Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura fakturatutako errezetak. Oporrak direla-eta gutxienez hamabost eguneko itxialdia egon bada, fakturazio-epea hilabetez luzatuko da salbuespen gisa.
- Dagokien Izendegian dispentsagarri bezala ez dauden sendagaien, efektu eta osagarrien edo produktu dietetikoaren errezeta fakturatuak, G Eranskinean jasotako inhalazio-ganbera pediatrikoak izan ezik.
- Osasun Sistema Nazionalaren eta/edo Osasun Sailaren kontura finantzatu ezin diren produktuen errezetak, nahiz eta Ikuskaritzako bisa izan.
- Efektu eta osagarrien eta produktu dietetikoaren errezetak, Osasun Sailak farmaziaz-bulegoen bidez ez dispentsatzea erabaki duenean.
- Osasun Sailak, Eranskin honetako 5. puntuan oinarrituta, dispentsaziorako ezarri dituen kontrol bereziko neurriak betetzen ez dituzten errezetak.
- Dispentsatzeko unean, Osasun Sailak ezarritako formatu ofizialean —euskarri fisiko edo digitalean—, prestazio farmazeutikorako eskubidea egiaztatzen duen agiri baliozkorik aurkezten ez duten erabiltzaileei dispentsatutako errezetak.
- Erabiltzaile mutualistei dispentsatutako errezetak, Ikuskaritzako bisa izan arren.

- Osasun Sailaren kargura prestazio farmazeutikoa jasotzeko eskubiderik ez duten erabiltzaileei dispentsatutako errezetak, Ikuskaritzako bisa izan arren.
- Eranskin honetako 1. puntuan jasota ez dauden egoeretan errezeta elektronikoko sistemara sartzeko OTI zenbakia tekletuz egindako dispentsazio elektronikokoak. Eranskin honetako 1. puntuan jasota dauden egoerak, behar bezala izapidetuta badaude bakarrik onartuko dira.
- Dispentsazio elektronikokoak, farmazia-bulegoak dispentsazio horiek balio gabetzea eskatu duenean.
- Dispentsatutako produktuak erabiltzaileari edo haren ordezkariari benetan eman aurretik edo ondoren erregistratu diren dispentsazio elektronikokoak. Hori guztia Eranskin honetako 1. puntuan jasotako salbuespenak eta formula magistralak kontuan izanik.
- Erabiltzailea edo haren ordezkaria farmazia-bulegora bertaratu gabe egin diren dispentsazioak. Hori guztia Eranskin honetako 1. puntuan jasotako salbuespenei kalterik egin gabe.
- Baliozkotasun-epetik kanpo dispentsatutako errezetak.
- Preskripzio-data edo aurreikusitako dispentsazio-data baino lehenago dispentsatu diren paperezko errezetak.
- Osasun Sailak baimendutako jendaurreko ordutegitik kanpo nabarmen erregistratutako dispentsazioak, tratamendu aktiboaren orrian pazienteak identifikatzeko barra-kodea duten pazienteen dispentsazioak izan ezik.
- Oporrengatiko itxialdian dispentsatutako errezetak.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako nahitaezko kontsignazio-datu guztiak ez dituzten paperezko errezetak. Pazientearen datuei dagokienez, beharrezkoak izango dira haren izena, identifikazio pertsonaleko zenbakia eta ekarpen-kodea. Hala badagokio, farmazialariak osatu ahal izango ditu pazientearen datu horiek. Salbuespen gisa, eta beti ere preskribatutako sendagaia argi eta garbi identifikatzen dela bermatzen denean, datu hauetako bat ez duten errezetak dispentsatu ahal izango dira: forma farmazeutikoa,

unitateko dosia, hartzeko bidea edo formatua. Dispentsazioa farmazialariaren jardun profesionalaren bidez bermatuko da egoera hauetan.

Halaber, posologiarik eta/edo tratamenduaren iraupenik ez badago, eta ezin izan bada kuantifikatu, farmazialariak errezeta dispentsatu ahal izango du, pazienteari horien berri eman zaiola egiaztatu ondoren.

- Preskripzio-datuetan eta datan gehikuntzak, zuzenketak edo zirriborroak dituzten paperezko errezetak, mediku preskriptoreak bere sinadura berriarekin baimendu ez dituenak.
- Zigilu-kupoirik ez duten errezetak, sendagaien, efektu eta osagarrien eta produktu dietetikoek kasuan, edo dispentsazioa egiaztatzen duen euskarririk ez duten errezetak, zigilu-kupoirik ez duten produktuen kasuan.

Salbuespen gisa, zigilu-kupoi orriak aurkeztea ahaztuz gero, hurrengo bi hilabeteetan Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira orriak dagozkien dispentsazioak justifikatzeko. Kasu horretan, aurkeztutako orriak aldi jakin eta mugatu bateko dispentsazioekin bat datozen baloratuko da.

- Dispentsazioan erregistratutako informazioa eta dispentsazioa egiaztatzen duen zigilu-kupoi bat ez datozen errezeta elektronikoak, nahiz eta produktu horiek legez ordezkarriak izan.
- Preskripzioari eta dispentsazioari dagokienez bat ez datozen paperezko errezetak, dispentsatu eta legez ezarritako ordezkapen bat egin ez bada, edo egun berean dispentsatutako paperezko errezeten zigilu-kupoiaren arteko trukea egin dela justifikatzen ez bada. Zigilu-kupoiaren trukearen justifikazioa, trukea paperezko errezetetan itsatsitako kupoiaren artekoa bada soilik onartuko da.
- Dispentsatu aurretik ikuskaritzaren bisa edo baimen sanitarioa behar duten errezetak, hura ez badute edo bisaren zain badaude.
- B Eranskinean ezarritakora egokitzen ez diren formula magistralak preskribatuta dituzten errezetak.
- Agiri bidez faltsuak direla egiaztatzen den paperezko errezetak.

- Lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen paperezko errezetak aseguru-erakundea Gizarte Segurantzza (GSIN) ez denean. Kasu horretan, errezeten originalak itzuliko dira.
- Osasun Sailak errezeta kode edo formatu horien baliozkotasuna amaitu dela jakinarazi duen kodea edo formatua duten errezetak
- Itun honen xede ez diren produktuen errezetak.
- Indarrean dagoen beste edozein araudi betetzen ez duten errezetak.

6.2.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak partzialki baliogabetzat joko ditu dispentsazioak, baldin eta honako intzidentzia hauek gertatzen badira:

- Izendegi Ofizialean edo har daitezkeen akordio espezifikoetan ezarritako prezioan baino prezio handiagoan edo baxuagoan fakturatutako errezetak dagokien prezioan ordainduko dira. Formula magistralen kasuan, B Eranskinean ezarritako tasazioaren arabera ordainduko dira.
- Paperezko errezeten kasuan, tamaina handiagoko ontzia dispentsatu denean, baldin eta preskripzioan txikiago bat agertzen bada edo ez bada tamainarik agertzen, baliogabetzat joko dira partzialki, eta ontzi txikiagoari dagokion zenbatekoa ordainduko da. Salbuespen dira, preskriptoreak adierazitako tratamendu pautak dispentsazioa justifikatzen duten elektronikoak ez diren paperezko errezetak.
- Paperezko errezeten kasuan, tamaina txikiagoko ontzia dispentsatu denean, baldin eta preskripzioan handiago bat agertzen bada, baliogabetzat joko dira partzialki, eta emandako ontziaren banaketa prezioari dagokion zenbatekoa ordainduko da, erabiltzaileak egindako ekarpena kenduta. Salbuespen dira, preskriptoreak adierazitako tratamendu pautak dispentsazioa justifikatzen dituen errezetak.
- Eskariaren araberrako preskripzioen errezeta elektronikoetan, preskribatutako tamaina baino handiagoa duen ontzia dispentsatu bada, preskribatutako ontziaren tamainari dagokion zenbatekoa ordainduko da.
- Dispentsazio elektroniko akutueta, preskribatutako ontzia baino handiagoa dispentsatu bada eta dispentsatutako ontziak tratamendua amaitzeko behar den kantitatea gainditzen badu, preskribatutako tamainari dagokion zenbatekoa ordainduko da.

- Formula magistralen paperezko errezetetan, dispentsatutako produktu-kantitateak baimendutako gehienekoa gainditzen badu, azken horren zenbatekoa baino ez da ordainduko.
- Ontzi bat baino gehiago dispentsatzen diren paperezko errezetetan, indarrean dagoen araudian jasotako salbuespenak kasu, ontzi baten zenbatekoa bakarrik ordainduko da, nahiz eta Ikuskaritzako bisa izan.
- Baimen sanitarioa edo Ikuskaritzako bisa behar duten preskripzioen paperezko errezetetan, baimendutakoa baino kantitate handiagoa dispentsatzen bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak baimendutako tratamenduari dagokion zatia baino ez du ordainduko.
- Farmazia-bulegoak partzialki baliogabetzea eskatu dituen dispentsazio elektronikokoak
- Paperezko errezetak, baldin eta fakturatu den erabiltzailearen ekarpena ez badator bat dispentsazio unean erabiltzaileak zeukan ekarpen kodearekin edo errezetan elektronikoki kontsignatutako ekarpen-kodearekin. Mugaldeko herritarren eta Europako osasun-txartela duten herritarren kasuan, ekarpen-araubidea Eranskin honetako hirugarren puntuan ezarritakoa izango da.

6.2.3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zuzengarriztat joko ditu honako kasu hauek:

- Akatsak produktua identifikatzeko zigiluetan (zigilu-kupoirik ez duten produktuetan) eta fakturazio-prozesuan errezetak aurkeztean.
- Farmazia-bulegoaren identifikazio-daturik eta/edo dispentsazio-datarik ez duten paperezko errezetak.
- Errezetaren aurrealdean balorazio-prozedura jasota ez duten formula magistralen paperezko errezetak.

B ERANSKINA

FORMULA MAGISTRALAK ETA BANAKAKO TXERTOAK

Eranskin honen bidez arautzen dira zein baldintzek erregulatuko duten formula magistralak, prestakin ofizinalak, alergiari kontrako banakako txertoak eta banakako autotxerto bakterianoak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatzea, baita prestazio farmazeutikoaren apartatu hau hitzartzeko baldintza ekonomikoak ere.

1. FORMULA MAGISTRALAK ETA PRESTAKIN OFIZINALAK

Apartatu honen edukia indarrean dagoen legeriara egokituko da: 1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Sendagaien eta Osasun-produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina onartzen duena; 175/2001 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, formula magistralak zuzen elaboratu eta horien kalitatea kontrolatzeko arauak onartzen dituena; 1348/2003 Errege Dekretua, urriaren 31koa, sendagaien sailkapen anatomikoa ATC sailkapen-sistemara egokitzen duena, eta Osasun Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak horri buruz ezartzen duten gainerako araudia (aplikazio-gida).

1.1. ITUN HONEN XEDE DIREN PRESTAZIO FARMAZEUTIKOAN SARTUTA DAUDEN FORMULA MAGISTRALAK ETA PRESTAKIN OFIZINALAK.

- 1.1.1. OSasun Sailaren kontura finantza daitezkeen formula magistralak eta prestakin ofizinalak Formulario Nazionalera egokitu behar dira
- 1.1.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatzen diren formula magistralak eta prestakin ofizinalak otsailaren 23ko 175/2001 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egin beharko dira —formula magistralak eta prestakin ofizinalak zuzen elaboratzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko arauak onartzen ditu dekretu horrek—, baita hori osatzen edo ordeztzen duen indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera ere, eta gaur egun onartuta dauden arau tekniko eta zientifikoaren arabera, erantsitako zerrendan edo haren eguneratzeetan jasotako printzipio aktiboekin, formularen eraginkortasuna, segurtasuna eta kalitatea bermatzen duen emate-bidean eta substantzia bakoitzerako zehazten diren baldintza berezietan.

1.2. PRESTAZIO FARMAZEUTIKOTIK KANPO DAUDEN FORMULA MAGISTRALAK ETA PRESTAKIN OFIZINALAK.

Formula magistralak eta prestakin ofizinalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren farmazia-prestaziotik kanpo geratzen dira honako kasu hauetan:

1.2.1. Preskripzioan osaera kualitatibo eta kuantitatiboa jasota ez dagoenean edo Espainian indarrean dagoen Formulario Nazionala edo Farmakopea aipatzen ez denean.

1.2.2. Itun honen sinatzaileen artean itundutako indarrean dagoen araudia aplikatzeko gidan ezarritakoaren arabera egin ez direnak.

1.2.3. Beren osaera eta/edo indikazioagatik, finantzaziotik kanpo dauden talde terapeutikoetan sailka daitezkeenak eta/edo beren osaerari dagokionez Osasun Sistema Nazionalak finantzatzen ez dituen giza erabilerarako sendagaiekin bat datozenak, bai eta segurtasun-arrazoiengatik merkatutik kendutakoak ere.

1.2.4. Haiek egitean, giza erabilerarako sendagai bat erabili denean. Salbuespenezko kasuak Osasun Sailak baimenduko ditu.

1.2.5. Estatuan baimendu eta merkaturatutako giza erabilerarako sendagairen baten osaerarekin, dosiarekin eta forma farmazeutikoarekin bat datozenak edo egoera berezietarako sendagai gisa eskuratu daitezkeenak, Osasun Sailak baimendutako egoeretan izan ezik.

1.2.6. Printzipio aktiboen zerrendako substantzia bakoitzerako zehazten diren baldintza bereziak betetzen ez direnean.

1.2.7. Eusko Jaurlaritzaren web-orrian argitaratutako printzipio aktiboen zerrendan jasotzen ez diren akzio eta indikaziodun printzipio aktiboak dituztenak.

1.2.8. Eszipientek soilik dituztenak, bakarrik edo nahasketan.

1.2.9. Fakturazioan, paperezko errezetaren aurrealdean, Eranskin honetako 1.8 puntuan jasotako balorazio-prozedura jaso ez denean. Hutsegite hori A Eranskinean xedatutakoaren arabera zuzendu ahal izango da.

1.3. ELABORAZIOA ETA DISPENTSAZIOA

Formula magistralak eta prestakin ofizinalak prestatzeko prozesua arau tekniko eta zientifikoaren arabera egingo da. Otsailaren 23ko 175/2001 Errege Dekretuan (formula magistralak eta prestakin ofizinalak zuzen elaboratzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko arauak onartzen dituen), eta hura osatzen edo ordeztzen duen indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da.

1.4. FORMULA MAGISTRALEN ETA PRESTAKIN OFIZINALEN BALORAZIOA

Formula magistralak eta prestakin ofizinalak Eranskin honetako 1.8 puntuan ezarritako prozeduraren eta arauen arabera baloratuko dira. Formula magistralen eta prestakin ofizinalen zenbatekoaren barruan sartzen dira printzipio aktiboen eta eszipienteen prezioa, egokitzapen-materiala eta ordainsari profesionala, bai eta kasuan kasuko zergak ere.

1.5. FORMULA MAGISTRALEN ETA PRESTAKIN OFIZINALEN EKARPENA

Formula magistralak eta prestakin ofizinalak dispentsatzean prestazio farmazeutikorako eskubidea duten onuradunen ekarpena indarrean dagoen legeriak zehaztuko du une oro.

Ekarpen murriztua dagokien monofarmako gisa formulatzen diren printzipio aktiboak Eusko Jaurlaritzaren web-orrian argitaratutako printzipio aktiboen zerrendan seinatuak agertuko dira.

1.6. FORMULA MAGISTRALEN ETA PRESTAKIN OFIZINALEN FAKTURAZIOA

Formula magistralak eta prestakin ofizinalak indarrean dagoen itunaren C Eranskinean ezarritakoaren arabera fakturatuko dira, eta forma farmazeutiko bakoitzerako errezeta bidez ezarritako gehieneko kantitateak gainditzen ez dituzten kantitateak soilik finantzatuak ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

1.7. PRINTZIPIO AKTIBOEN ZERRENDA

1.7.1. Printzipio aktiboak, horiek emateko bidea eta formula magistraletan edo prestakin ofizial finantzagarrietan sartzeko gainerako baldintza bereziak Eusko Jaurlaritzaren web-orrian argitaratutako zerrendan (I. Taula) agertzen dira, eta horien eguneratzeak Farmazialarien Elkargo Ofizialei jakinaraziko zaizkie. Printzipio aktiboak ez dira inoiz soltean dispentsatutako.

Printzipio aktiboen prezioak zerrenda horretan agertuko dira, eta ahal dela EAeko kudeaketa-eremuko hornitzaile adierazgarriek adierazitako koste prezioetatik abiatuta finkatuko dira.

1.7.2. Printzipio aktiboen eta prezioen zerrenda berrikustea

Zerrendan aurrerantzean egiten diren aldaketak prozedura honen arabera egingo dira:

- a) Osasun sistema publikoko medikuek, eta farmazia-bulegoko, lehen mailako arretako edo ospitaleko farmazia-zerbitzuko farmazialariek eskatu ditzakete aldaketak.
- b) Eskaera idatziz bidaliko zaie Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzei, justifikatzen duen dokumentazioa erantsita.
- c) Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzek printzipio aktibo berri bat sartzeko edo prezioa berrikusteko eskaerak Farmazia Zuzendaritzako Prestazio Farmazeutikoen Zerbitzuari bidaliko dizkiote. Zerbitzu horrek printzipio aktibo hori zerrendan sartzea egokia den aztertuko du, EAE osorako baldintzak ezarriko ditu, eta inplikaturako eragile guztiei jakinaraziko die.

1.7.3. Banakako baimen eskaera

Salbuespen gisa, Farmazia Ikuskaritzek baimena eman ahal izango dute itunean sartzen ez diren banakako formula magistralak finantzatzeko, baldin eta haien printzipio aktiboek indikazio hori baimendua eta finantzatua badute. Dagokion mediku-txostena aurkeztu beharko da.

1.8. FORMULA MAGISTRALAK ETA PRESTAKIN OFIZINALAK BALORATZEKO PROZEDURA

1.8.1. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kargurako formula magistralen eta prestakin ofizialen publikoarentzako salmenta prezioa honela kalkulatu da:

- Lehenik eta behin, dagokion zerrendan agertzen diren printzipio aktiboen prezioa hartuko da kontuan, eta erabilitako kantitatearen arabera kalkulatu da zenbatekoa, I. Taulari jarraikiz.
- Ondoren, eszipientearen prezioa gehituko da, II. Taulan agertzen denaren arabera.
- Jarraian, III. Taulan agertzen diren ordainsari profesionalaren prezioa gehituko da.
- Talde bakoitzaren balorazio-irizpide gisa, P faktorea (konstantea) mantentzen da, eta forma farmazeutiko bakoitzaren prestaketak duen konplexutasunaren arabera finkatzen den koefiziente aldakor batez biderkatzen da. Faktore hori urtero berrikusiko da, urteko KPIaren igoeraren arabera. Faktore horrek 4,11 euroko balioa du, itun hau indarrean jartzen denetik aurrera.
- Azkenik, ontziaren prezioa gehituko da, IV. Taulan zehaztutakoaren arabera.

- Ateratzen den prezioari sendagaietarako indarrean dagoen BEZa gehitu behar zaio.
- Paperezko errezetaren aurrealdean fakturazioaren azken prezioa sartu beharko da eta honela banakatuta kontsignatuko da: printzipio aktiboak + eszipientek + ordainsari profesionala + ontzia + BEZa.

OHARRAK:

- A. III. Taulan (Ordainsari profesionalak), Osasun Sailaren kontura egin daitezkeen gehieneko kantitatea ezartzen da; pisua, bolumena, unitatea eta abar zehaztu dira. Kantitate handiagoak dispentsatzen badira, gehieneko kantitatea baino ez da ordainduko.
- B. Formularen printzipio aktiboen zerrendan aipatzen ez diren produktu kimikoak zerrenda horretan agertzen diren beste batzuen laguntzaile edo eszipiente gisa sartzeak ez du formula kanpo uztea ekarriko. Kasu horietan, produktu horien prezioa eszipientearenean sartuta dagoela ulertuko da. Ostera, kanpoan uzteko arrazoiak da printzipio aktiboen zerrendan ez dauden akzio eta indikaziodun printzipio aktiboak formularen egotea, edo zerrendan zehaztutakoez bestelako baldintzetan sartuta badaude.

2. ALERGIEN KONTRAKO BANAKAKO TXERTOAK ETA AUTOTXERTO BAKTERIANOAK

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatzeari dagokionez, alergiaren kontrako banakako txertotzat eta banakako autotxerto bakterianotzat hartuko dira; agente immunizatzaileekin, kontzentrazio eta diluzio espezifikoan, paziente zehatz batentzat dagokion medikuaren preskripzioa oinarri hartuta, AEMPS-ek behar bezala baimendutako farmazia-laborategiek prestatu eta ontzian identifikazio-etiketa bat dutenak. Etiketa horretan datu hauek agertuko dira:

- Prestakinaren izena eta osaera kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- Emateko bidea.
- Hartzailearen izena.
- Prestatu duen laborategiaren izena eta helbidea.
- Iraungitze-data.
- Medikuen preskriptorea.
- Dispentsatu duen farmazia.
- Laborategiko identifikazio-gakoa edo erreferentzia-zenbakia.
- PSP + BEZ-a.

Etiketa hori errezetan edo kupoi orrian erantsi beharko da onuradunari txertoa ematen zaionean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura finantzatzeko, dispentsatu aurretik, banakako txerto guztiek Ikuskaritzaren bisa beharko dute.

Banakako txertoen ekarpena legez ezarritakoa izango da.

Gutxienez datu hauek agertuko dira preskripzioan:

- Konposizio kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- Hasiera edo jarraipena den.
- Marka.
- Laborategia.
- Emateko bidea.

Hala ere, datu horietako bat falta bada, ez da errezeta baliogabetuko.

3. FORMULA MAGISTRALEN BALORAZIORAKO TAULAK

X: Topazio-plastikoa

OX: Topazio-kristala

I. TAULA: PRINTZIPIO AKTIBOEN PREZIOA

Ontzia	Izena	Oharrak	Ekarpen murriztua	Prezioa G/€
X	ALOPURINOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	0,3364
	AMIODARONA KLOORHIDRATOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	4,5382
X	AMLODIPINOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	32,0375
X	ATENOLOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	2,0671
X	ATROPINA	Atropina % 0,01 kolirioa 10ml/5ml preskripzio elektronikoa bakarrik		15,9317
	AZATIOPRINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	
	AZETILZISTEINA	Bide oftalmikotik bakarrik		0,2627
	AZIDO AZETIKO MEDIZINALA	Monofarmako gisa, belarrietatik bakarrik		0,0301
	AZIDO AZETILSAIZILIKOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0604
	AZIDO BORIKOA	Monofarmako gisa bakarrik, bide otikotik eta bagina bidetik		0,0186
	AZIDO FOSFORIKOA	Printzipio aktibo gisa, fosfato-soluzioen dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,0241
	AZIDO SALIZILIKOA	Gehienez %10ko kontzentrazioa, bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo kortikoideekin batera.		0,0311
X	AZIDO TRANSERRETINOIKOA = Trans Erretinoiko Azidoa = Tretinoia = A bitamina azidoa	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo kortikoideekin batera		14,2768
	AZIDO URSODESOXIKOLIKOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		2,7999
	AZIDO ZITRIKOA	Printzipio aktibo gisa, zitratoen soluzioen bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0450
	BANKOMIZINA KLOORHIDRATOA	Bankomizina klorhidratoa 125 mg, 40 kapsula preskripzio elektronikoa bakarrik		5,1770
X	BEKLOMETASONA DIPROPIONATOA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera	BAI	40,1886
X	BENTZILO BENTZOATOA	Bide topikotik bakarrik, %10etik % 30era bitarteko kontzentrazioetan		0,4192
	BERAPAMILOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	7,7218
X	BETAMETASONA BALERATOA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		20,9155
X	BETAMETASONA DIPROPIONATOA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		16,3314
	DESOXIMETASONA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		79,3087

Ontzia	Izena	Oharrak	Ekarpen murriztua	Prezioa G/€
X	DEXAMETASONA	Ahotik dosifikazio pediatrikoetan bakarrik, eta bide topikotik monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		10,3423
	DILTIAZEMA	Ondesteko bide topikotik bakarrik	BAI	7,0708
X	ENALAPRILO MALEATOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	5,9785
X	ERRETINOLA = A bitamina hidrodisolbagarria	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,42
	ERRIBOFLABINA (B2)	Gaixotasun mitokondrialak tratatzeko, bisarekin		0,4147
	ERRIFANPIZINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,9754
OX	ESPIRONOLAKTONA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	3,5525
X	ESTRADIOL BALERATOA	1 mg-ko kapsulak eta 2 mg-ko kapsulak preskripzio elektronikoak bakarrik		120,299 9
X	ETAMBUTOL KLOORHIDRATOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	0,8677
	ETINILESTRADIOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	59,0726
	FAMOTIDINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		
X	FENOBARBITALA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	2,5948
	FLEKAINIDA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	5,4772
X	5 FLUOROURAZILOA	Bide topikotik bakarrik	BAI	11,3878
X	FOSFATO DISODIKOA	Printzipio aktibo gisa, fosfato-soluzioen dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,0471
X	FOSFATO MONOPOTASIKOA	Printzipio aktibo gisa, fosfato-soluzioen dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,1051
	FOSFATO MONOSODIKO DIHIDRATATUA = Sodio fosfato monobasiko dihidratatua	Printzipio aktibo gisa, fosfato-soluzioen dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,0351
X	FUROSEMIDA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	1,4122
X	GRISEOFULBINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		2,8903
OX	HIDROKLOOROTIAZIDA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	0,7184
X	HIDROKORTISONA BASEA	Ahotik dosifikazio pediatrikoetan bakarrik, eta bide topikotik monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		5,6263
X	INDOMETAZINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,5762
OX	IDO METALOIDEA	Bide sistemikotik bakarrik		0,2561
X	ISONIAZIDA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	0,6716
X	KALTZIO KARBONATO PREZIPITATUA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0104
	KAPTOPRILOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	8,601
	KARBAMAZEPINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	1,3617
X	KARBEDILOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	20,6029
X	KELINA	Bide topikotik bakarrik, % 2tik % 5era bitarteko kontzentrazioetan		3,1324
X	KETOKONAZOLA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako bezala, gel ez-detergente gisa		3,0519
X	KLOBETASOL PROPIONATOA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		20,4406

Ontzia	Izena	Oharrak	Ekarpen murriztua	Prezioa G/€
	KROMOGLIKATO DISODIKOA	Monofarmako gisa, inhalazio bidez, bisa gabe. Mastozitosisia tratatzeko ahotik (100 kapsulako ontzietan bakarrik) eta bide topikotik, bisarekin.	BAI	2,6106
X	LABETALOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	
X	LOSARTANA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	
X	METFORMINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	0,1058
X	METILPREDNISOLONA	Bide oftalmikotik bakarrik		16,9712
X	METRONIDAZOLA	Bide topikotik bakarrik, gel forman, %2ra		0,6378
X	NEO HELIOPAN E1000	Lupus eritematoso eta dermatomiositis kasuetan bakarrik, bisarekin		0,0996
	NIFEDIPINOA	Ondesteko bide topikotik bakarrik	BAI	3,8982
X	NIKOTINAMIDA = PP bitamina	Monofarmako gisa bakarrik		0,4189
X	NISTATINA	Bagina bidetik bakarrik		1,0832
	OMEPRAZOLA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		4,6329
	OXIBENZONA	Lupus eritematoso eta dermatomiositis kasuetan bakarrik, bisarekin		0,128
	PARSOL 1789	Lupus eritematoso eta dermatomiositis kasuetan bakarrik, bisarekin		0,1678
X	PILOKARPINA KLOORHIDRATOA	Bide oftalmikotik bakarrik		20,1702
	PIRAZINAMIDA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	1,2158
X	PIRIDOXINA KLOORHIDRATOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,4417
	PIRIMETAMINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	
	POTASIO BIKARBONATOA			0,0352
X	POTASIO IODUROA	Bide sistemikotik bakarrik		0,1771
	POTASIO KLOORUROA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0524
	POTASIO ZITRATOA	Printzipio aktibo gisa, zitrato-soluzioan dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,0673
X	PREDNISONA	Ahotik dosifikazio pediatrikoetan bakarrik, eta bide topikotik monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		12,9411
X	PROPRANOLOLA	Bide topikotik pediatrian bakarrik	BAI	0,5831
	SODIO BIKARBONATOA	Ahotik bakarrik, monofarmako gisa		0,0104
	SODIO FOSFATO MONOBASIKO DIHIDRATOA = Fosfato monosodiko dihidratatua	Printzipio aktibo gisa, fosfatoen soluzioan bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0351
	SODIO FOSFATO TRIBASIKOA	Printzipio aktibo gisa, fosfatoen soluzioan bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0198
	SODIO KROMOGLIKATOA = Kromoglikato disodiko	Monofarmako gisa, inhalazio bidez, bisa gabe. Mastozitosisia tratatzeko ahotik (100 kapsulako ontzietan bakarrik) eta bide topikotik, bisarekin.	BAI	2,6106
	SODIO ZITRATOA = Zitrato sodikoa	Printzipio aktibo gisa, zitratoen soluzioan bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,0345
	SUFREA	Preskripzio elektronikoak bakarrik: baselina sufreduna %6an		0,0321
X	SULFADIAZINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,2458
	SULFASALAZINA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	1,0527
	SULISOBENTZONA	Lupus eritematoso eta dermatomiositis kasuetan bakarrik, bisarekin		

Ontzia	Izena	Oharrak	Ekarpen murriztua	Prezioa G/€
	TAKROLIMUSA	Takrolimus 2mg 24 supositorioen preskripzio elektronikoa bakarrik, bisarekin	BAI	263
	TIAMINA (B1)	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan		0,3374
	TIMOLOLA	Bide topikotik bakarrik, pediatrian	BAI	43,137
X	TITANIO DIOXIDOA = (Tioveil AQN)	Lupus eritematoso eta dermatomiositis kasuetan bakarrik, bisarekin		0,0961
	TOPIRAMATOA	Ahotik bakarrik, dosifikazio pediatrikoetan	BAI	5,4455
	TRIAMZINOLONA AZETONIDOA	Bide topikotik bakarrik, monofarmako gisa edo keratolitikoekin batera		9,7949
X	ZIKLOSPORINA	Oftalmikoa bakarrik		40,6525
	ZITRATO SODIKOA = Sodio zitratoa	Printzipio aktibo gisa, zitrato-soluzioan dosifikazio pediatrikoetan bakarrik		0,0361

1348/2003 Errege Dekretuaren arabera, prestakin estomatologiko guztiak baztertuta daude, antifungiko lokalak eta gastrointestinalak izan ezik.

II TAULA: ESZIPIENTEEN PREZIOAK

Eszipientek	Prezioa
SOLUZIO ETA SUSPENSIO ESTERILAK (injektagarriak eta kolirioak)	0,38 €/10 ml edo frakzioa
SOLUZIO ETA SUSPENSIO EZ-ESTERILAK (topikoak eta ondestekoak):	
Akuosoak	0,70 €/100 ml edo frakzioa
Hidroalkoholikoak eta ez-akuosoak	2,34 €/100 ml edo frakzioa
Azazkaletako laka	4,12 €/10 ml edo frakzioa
SOLUZIO ETA SUSPENSIO EZ-ESTERILAK (ahozkoak):	
Soluzio akuosoak	0,70 €/100 ml edo frakzioa
Jarabe sinplea eta suspentsioak	2,18 €/100 ml edo frakzioa
Jarabe berezia (horrela deskribatutako preskripzio elektronikoetan soilik)	13,28 €/100 ml edo frakzioa
PASTA ETA POMADA ANHIDROAK (oftalmikoak barne)	1,56 €/100 ml edo frakzioa
EMULTSIOAK ETA GELAK	2,18 €/100 ml edo frakzioa
HAUTSAK ETA GRANULATUAK	0,78 €/100 g
SUPOSITORIOAK ETA OBULUAK	0,04 €/unitatea
KAPSULA GASTROERRESISTENTEAK	0,04 €/unitatea

III. TAULA: ORDAINSARI PROFESIONALAK

FORMA FARMAZEUTIKOA	Gehienez	
Injektagarriak (soluzioak eta suspentsioak)	25	P x 11
Kolirioak	1	P x 11
Pomada oftalmikoak	1	P x 12
Obuluak eta supositorioak	24	P x 9
Kapsulak	100	P x 9
	Gramoak edo mililitroak	
FORMA FARMAZEUTIKOA	Gehienez	
Pasta eta pomada anhidroak	200	P x 5
Granulatuak, emultsioak eta gelak	200	P x 5
Hautsak	200	P x 3
Soluzio eta suspentsio ez-esterilak (jarabeak barne)	250	P x 4
Soluzio eta suspentsio esterilak	250	P x 7
Azazkaletako lakak	10	P x 4
Enemak *	1.000	P x 5

* Gehieneko bolumena 1.000 ml-koa izango da, eta hainbat ontzitan banatu ahal izango da (adibidez, 100 ml-ko enemak 10 enemara arte errezeta batean joan ahal izango dira, eta horiek 1.000 ml bezala tasatuko dira).

IV. TAULA: ONTZIEN PREZIOA

FORMA FARMAZEUTIKO LIKIDOAK		
	Bolumena/Unitateak	Prezioa (€)
Plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	30 cl	0,55
Plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	60 cl	0,63
Plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	125 cl	0,69
Plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	250 cl	0,72
Topazio-plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	30 cl	0,52
Topazio-plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	60 cl	0,69
Topazio-plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	125 cl	0,92
Topazio-plastikozko flaskoa, tapoi zigilatua	250 cl	1,09
Topazio-kristalezko flaskoa, tapoi zigilatua	30 cl	0,53
Topazio-kristalezko flaskoa, tapoi zigilatua	60 cl	0,61
Topazio-kristalezko flaskoa, tapoi zigilatua	125 cl	0,70
Topazio-kristalezko flaskoa, tapoi zigilatua	250 cl	0,90
Topazio-kristalezko flaskoa, tanta-kontagailua	30 cl	1,06
Topazio-kristalezko flaskoa, tanta-kontagailua	125 cl	1,23
FORMA FARMAZEUTIKO ERDISOLIDOAK		
Plastikozko hodia	30 cl	0,83
Plastikozko hodia	50 cl	0,96
Plastikozko hodia	75 cl	1,03
Plastikozko hodia	100 cl	1,17
Plastikozko hodia	200 cl	1,41
Topazio-kristalezko flaskoa, espatula edo pintzelarekin	30 cl	0,88
KAPSULAK		
Plastikozko potoa, tapa zigilatua (50 kapsula, 0 zk.)	75 cl	0,73
Plastikozko potoa, tapa zigilatua (100 kapsula, 0 zk.)	175 cl	0,85
SUPOSITORIOAK ETA OBULUAK		
Supositorioen moldea/ontzia	6 unitate edo frakzioa	2,65
Obuluen moldea/ontzia	6 unitate edo frakzioa	4,27
INJEKTAGARRIAK		
2 ml-ko anpoila	2 cl	
5 ml-ko bialak	5 cl	0,61
10 ml-ko bialak	10 cl	0,63
KOLIRIOAK		
Flasko zuri esterila	5 cl	0,90
Flasko zuri esterila	10 cl	0,92
HAUTS KONPOSATUAK		
Talko-ontzia	100 cl	0,82
Talko-ontzia	200 cl	0,94
ENEMAK		
Enementzako kanula	1 kanula	1,50

C ERANSKINA

FAKTURAZIO PROZEDURA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatutako errezeten fakturazioa Eranskin honetan adierazitako prozeduraren arabera burutuko da eta errezeten prozesaketa informatikoaren bidez egingo da.

Errezetak fakturatzeko, Elkargoen farmazia-bulegoen kontura kobratzen dute, eta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren arabera, hori ez da hirugarrenen konturako fakturazioa.

Mekanizazio informatikoa errazte aldera, paperezko errezetek neurri eta gramaje berdinak izan ditzaten ahalegina egingo da.

Itun hau indarrean jarri aurretik egin ohi zen bezala, farmazia-bulegoek bere gain hartuko dute errezeten fakturazioaren kostua, Elkargo Erakunde Farmazeutikoaren bitartez. Edozein kasu berri Itundu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde Mistoak onetsi ondoren.

1. FAKTURAZIO AURREKO ARAUAK

1.1. Paperezko errezeta: errezeta fakturagarri izan dadin, zigilu-kupoi edo kupoiak, horretarako gordetako lekuan eraman beharko ditu, giza erabilerarako sendagaiak, produktu dietetikoak edo efektu eta osagarriak direnean. Dispentsatu behar den produktuak fakturaziorako egokia den zigilu-kupoirik eta/edo barra-koderik ez duenean bakarrik jarriko da leku horretan etiketa autoitsaskor bat edo zigilu bat (I. Eranskina) honako kasu hauek bereizteko:

KODEA

500009	Banakako estraktu hiposentsibilizatzaileak eta autotxerto bakterianoak.
500058	Formula magistralak (ekarpen murriztua).
500001	Formula topikoak (ekarpen normala).
500002	Ahozko formula likidoak (ekarpen normala).
500003	Ahozko formula solidoak (ekarpen normala).
500004	Formula esterilak (ekarpen normala).
Kodea	Formula magistral elektronikoak.

Zigilu-kupoiak zein etiketa autoitsaskorra errezetan jarriko dira irakurtzeko moduan eta manipulazio arruntean eta irakurketa automatizatuan ez erortzeko moduan

Zigilu-kupoirik ez duten inhalazio-ganbera pediatrikoen kasuan, G Eranskinean xedatutakoa beteko da.

Estraktu hiposentsibilizatzaileak edo autotxerto bakterianoak dispentsatzen direnean, B Eranskineko 2. apartatuan jasotako informazioa adieraziko da atzealdean.

Etiketa autoitsaskorrean nahitaez eta irakurtzeko moduan kontsignatua egon beharko du dispentsatutako produktuaren publikoarentzako salmenta prezioa.

Errezetek horretarako gordetako lekuan eraman beharko dute farmazia-bulegoaren zigilua, non nahitaez agertu beharko duten dispentsazio-data, farmazia zenbakia argi eta garbi eta farmaziaren izena.

1.2. Errezeta elektronikoa: Hilabete horretan fakturatu behar diren dispentsazio elektronikoein batera, horiei dagozkien fakturazio-hilabeteko kupoi-orriak aurkeztuko dira. Dispentsatu behar den produktuak fakturaziorako egokia den zigilu-kupoirik eta/edo barra-koderik ez duen kasuetan bakarrik jarriko da leku horretan formula magistralaren kodea duen etiketa autoitsaskorra, eta zigilu-kupoirik ez duten inhalazio-ganbera pediatrikoen kasuan, G Eranskinean xedatutakoa beteko da.

Beste autonomia-erkidegoetako pazienteei Euskadin interoperabilitate sistemaren bidez egindako dispentsazio elektronikoei Euskadiko errezeta elektronikoko dispentsazio- eta fakturazio-arauei jarraituko diete. Zigilu-kupoiak Osakidetzako dispentsazio elektronikoen kupoi-orri berberetan itsatsiko dira.

2. FAKTURAZIO PROZESUA

Fakturazio prozesua bakarra eta uniforme izango da lurralde historiko guztientzat. Farmazia-bulegoek egingo dute, beren Elkargo Ofizialen bitartez.

2.1. DATU BILKETA

2.1.1. Fakturazio prozesurako eta prestazio farmazeutikoaren kontrol egokirako, beharrezkoa da paperezko errezetetatik honako datu hauek grabatzea:

1. Lurralde Historikoa
2. Hilabetea
3. Urtea
4. Farmazia-bulegoaren zenbakia
5. Pakete zenbakia
6. Kontingentea
7. Erregimena
8. Dispentsatutako giza erabilerarako sendagaiaren, efektu edo osagarriaren edo dietoterapikoaren kode nazionala, edo etiketa autoitsaskorraren edo, hala badagokio, zigiluaren kodea
9. Fakturazio-prezioa
10. Dispentsatutako ontzi kopurua
11. Medikuen elkargokide zenbakia
12. Ordena-zenbakia
13. Preskribatutako ontzi kopurua
14. Mediku elkargokide titularra
15. Mediku-plaza titularra
16. Ekarpene-kodea
17. Errezeta-kodea
18. Preskripzio-data
19. 0 (lehen Osakidetzaren errezeta identifikazioa)

20. Preskribatutako kode nazionala
21. OTI kodea
22. Mediku elkargokide ez-titularra
23. Mediku-plaza ez-titularra
24. Zentro ez-titularra
25. TSI
26. TSI azpimota

Ituna sinatu duten alderdiek, ados jarrita, beste datu batzuk hartzea edo datuak aldatzea erabaki ahal izango dute.

Zenbait datu ez dituzten paperezko errezetetan, eremu horiek «0» gisa grabatuko dira.

2.1.2. Osasun Sailak dispentsazio elektronikoen eta interoperabilitate bidez egindako dispentsazio elektronikoen artxiboak Farmazialarien Elkargo Ofizialei bidaliko dizkie, eta hortik aterako dira farmazia-bulegoek fakturatzeko hautatutako dispentsazio elektronikoen fakturazio fitxategiak egiteko behar diren datuak.

Dispentsazio elektronikoen, fakturazio prozesurako eta prestazio farmazeutikoaren kontrol egokirako, beharrezkoa da honako datu hauek grabatzea:

1. Lurralde Historikoa
2. Hilabetea
3. Urtea
4. Farmazia-bulegoaren zenbakia
5. Eman zaion pakete zenbakia
6. Kontingentea
7. Erregimena
8. Dispentsatutako kode nazionala edo etiketa autoitsaskorraren edo, hala badagokio, zigiluaren kodea
9. Fakturazio-prezioa
10. Dispentsatutako ontzi kopurua
11. Ekarpen-kodea
12. Eman zaion errezeta-kodea
13. Dispentsazioaren identifikazio kodea
14. TSI
15. TSI azpimota
16. 8/2010 ELD deskontua
17. Kanpaina sanitarioa
18. Espainiako izen ofiziala (DOE)
19. Indikazioagatiko bisa
20. Egoiliarra

Interoperabilitateko errezeta elektronikoen dispentsazioen kasuan, honako hauek ere sartuko dira:

- Pazientearen erkidegoko OID
- Zentro preskriktorearen erkidegoko OID

Fakturaturako dispentsazio elektronikoak eta kupoi-orriak gurutzatzean, kupoirik uztartu ez zaien dispentsazioen artxiboak (deskoadratzeak), dispentsazio bati uztartu ez diren kupoiaren artxiboa eta ondorengo datuak dituen uztartutako kupoiaren artxiboa sortuko dira:

- Aldia
- Lurralde Historikoa
- Farmazia-bulegoaren zenbakia
- Kupoi-orriaren data
- Zigilu-kupoiaren koordinatuak
- Kupoi-orriaren identifikazioa
- Kode nazionala
- Kupoiarekin uztartu den dispentsazioaren identifikazio kodea
- Interoperabilitatea

2.1.3. Hileko ekarpen-muga duten erabiltzaileen errezeten ekarpenen arteko diferentzia kalkulatzeko, Osasun Sailak Farmazialarien Elkargo Ofizialei koordainketako aplikazio/kontagailutik datorren artxibo bat bidaliko die. Bertan, honako datu hauek zehaztuko dira, farmazia-bulego bakoitzeko:

- Urtea
- Hilabetea
- Farmaziaren kodea
- OTI
- TSI kodea
- TSI azpimota
- Ekarpen erreala
- Ekarpen teorikoa
- Ontzi kopurua

2.2. FAKTURAZIOKO EUSKARRI INFORMATIKOA EGITEA

Fakturazio-datuak fakturazio CDan grabatuko dira (kontingente guztientzat eta aldi osorako).

Fakturazio CDa etiketa batekin identifikatuko da kanpotik, eta bertan, fakturazioa zein hilabeteri eta Lurralde Historikori dagokion adieraziko da, bai eta zenbat erregistro dituen ere.

Fakturazio CDarekin batera, DVD bat aurkeztuko da, non hilabete horretan fakturatutako paperezko errezeta guztien aurrealdearen irudi digitalizatuak jasoko diren. Datuen CDari lotuta egongo dira irudi horiek, enpresa grabatzaileak emandako programa informatiko baten bidez. Horrekin batera, beste DVD bat aurkeztuko da, dispentsazio elektronikoaren kupoi-orrien aurrealdearen irudi digitalizatuarekin eta dispentsazioekin uztartu diren kupoiaren artxiboarekin.

Fakturazio CDan jasotzen ez diren errezeta elektroniko fakturatuen eremu espezifikoak, errezeta elektronikoko artxibo espezifikoetan aurkeztuko dira:

- Euskadiko errezeta elektroniko sistemako dispentsazio elektronikoaren fakturazioa
- Kupoiarekin uztartu diren Euskadiko errezeta elektroniko sistemako dispentsazio elektronikoaren fakturazioa
- Interoperabilitateko dispentsazioaren fakturazioa
- Kupoiarekin uztartu diren interoperabilitateko dispentsazioaren fakturazioa

- Dispentsazio elektronikoen fakturazioen batuketa (Euskadiko errezeta elektronikoen sistema + interoperabilitatea)
- Kupoirik uztartu ez zaien dispentsazioak
- Dispentsazio bati uztartu ez diren kupoiak
- Interoperabilitateko igorle eta hartzaile fitxategiak

Itun hau sinatzen duten alderdiek informazioa online kargatzea ahalbidetuko duten sistemak garatzen lan egingo dute.

Eranskin honetako 4.1.1 puntuan aipatzen diren "errezeta zuzengarrien" kasuan, egiaztatzeko eta betetzeko farmazia-bulegoetara itzultzen direnean, behin horiek itzultzeko arrazoi izan diren akatsak konpondu direnean, ez dira berriro grabatuko.

Fakturazioari dagokionez, kontingenteak honela kodetuko dira:

1. Bisa-onespenik gabeko FI sendagaiak
2. Bisa behar duten FI sendagaiak
3. Formula magistralak
4. Banakako txertoak
5. Efektu eta osagarriak (gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak izan ezik)
6. Baliogabea (lehen zentro soziosanitarioei dispentsatutako gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak)
7. Zentro soziosanitarioei dispentsatu ez zaizkien gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak
8. Produktu dietetikoak
9. Beste zenbait

Aipatutako kontingente horietako bakoitza erregimen desberdinetan bereiziko da:

1. TSI 003, 004 eta 00500 ditu barne.
2. TSI 001, 002 eta 00503 ditu barne.
3. Lan-istripuak.
4. Kanpaina sanitarioa.
5. Sindrome toxikoa.
6. Beste batzuk.

Administrazioak, dagokion hilaren 1a baino lehen, prezio eguneratuak dituen Izendegi Ofiziala bidaliko die Farmazialarien Elkargo Ofizialei.

Fakturazio CDaren egitura honako hau da:

1. Lurralde Historikoa (2 digitu)
2. Hilabetea (2 digitu)
3. Urtea (4 digitu)
4. Farmazia-bulegoaren zenbakia (4 digitu)
5. Pakete zenbakia (4 digitu)
6. Kontingentea (1 digitu)
7. Erregimena (1 digitu)
8. Dispentsatutako kode nazionala edo etiketa autoitsaskorraren edo, hala badagokio, zigiluaren kodea (6 digitu)
9. Fakturazio prezioa (9 digitu)

10. Dispentsatutako ontzi kopurua (2 digitu)
11. Medikuaren elkargokide zenbakia (12 digitu)
12. Preskribatutako ontzi kopurua (2 digitu)
13. Elkargokide titularra (12 digitu)
14. Mediku-plaza titularra (6 digitu)
15. Ekarpem-kodea (1 digitu)
16. Errezeta-kodea (12 digitu)
17. Preskripzio-data (8 digitu)
18. Dispentsazio elektronikoen identifikazio kodea (32 digitu)
19. Preskribatutako kode nazionala (6 digitu)
20. OTI kodea (9 digitu)
21. Mediku elkargokide ez-titularra (12 digitu)
22. Mediku-plaza ez-titularra (6 digitu)
23. Zentro ez-titularra (6 digitu)
24. Ekarpem (9 digitu)
25. Ordena-zenbakia (3 digitu)
26. TSI (7 digitu)
27. TSI azpimota (2 digitu)

2.3. INFORMAZIOAREN ERABILERA

Itun honen 7. klausulan ezarritakoaren arabera, debekatuta dago datuak ematea. Aurrekoari kalterik egin gabe, farmazia-bulegoek eta Farmazialarien Elkargo Ofizialek fakturazioari eta farmazia-bulegoei ordaintzeko behar diren prozesu guztietarako baino ezin izango dute erabili errezetetatik datorren informazioa. Datuen beste edozein erabilera Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari jakinaraziko zaio, baita sendagaien trazabilitatea edo beste helburu batzuk lortzeko legezko araudiaren bidez araututako kasuetan ere, eta horiek ezartzen dituzten prozeduren eta irismenaren arabera. Nolanahi ere, informazio hori erabiltzailearen eta profesionalen datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legediaren eta araudiaren mende egongo da.

2.4. FAKTURAK EGITEA

Errezetatetik lortutako informazioarekin, prozesua kontrolatzeko tresna gisa erabiliko den euskarri informatikoan grabatzeaz gain, errezeten fakturak egingo dira hileroko, zeinak ordainketa formalizatzeko dokumentu gisa erabiliko diren.

Fakturazio prozesuak Itundutako datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Osasun Sistema Nazionalari dagokionez behar dituen moduan emango ditu.

2.5. FAKTURAZIO-ALDIA

Fakturazioak hilabeteko aldi naturalak hartuko ditu barne, salbuespenezko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik, eta dispentsazio o modalitate guztien itxiera bateratua berrmatuko du.

2.6. FAKTURA MOTAK

Hiru faktura mota egingo dira:

1. Farmazia bakoitzeko banakako faktura (II. Eranskina).
2. Lurralde Historiko bakoitzeko laburpen faktura (III. Eranskina).

3. Laburpen-faktura orokorra (IV-1 Eranskina, IV-2 Eranskina eta IV-3 Eranskina).
4. Eranskin gehigarriak: IV-1A Eranskina, IV-1C Eranskina eta IV-1D Eranskina.

2.6.1. Farmazia bakoitzeko banakako faktura (II. Eranskina)

Farmazia bakoitzeko banakako faktura guztiak euskarri informatikoan emango dira. Banakako faktura bereziak egingo dira honako hauetarako:

- Giza erabilerarako sendagaiak, efektu eta osagarriak eta produktu dietetikoak
 - TSI banaketarik gabeko paperezko errezetak eta errezeta elektronikoak
 - TSI 001 paperezko errezetak
 - TSI 002 paperezko errezetak
 - TSI 003 paperezko errezetak
 - TSI 004 paperezko errezetak
 - TSI 005 paperezko errezetak
 - Lan-istripuak
- Formula magistralak, banakako txertoak eta inhalazio-ganbera pediatrikoak
 - TSI banaketarik gabeko paperezko errezetak eta errezeta elektronikoak
 - TSI 001 paperezko errezetak
 - TSI 002 paperezko errezetak
 - TSI 003 paperezko errezetak
 - TSI 004 paperezko errezetak
 - TSI 005 paperezko errezetak
 - Lan-istripuak
- Kanpaina sanitarioa
- Sindrome toxikoa

Bi alderdien adostasunez, Itun honetan jasotako erregimen eta kontingenteak fakturan aurkezteko modua aldatu ahal izango da.

Farmazia bakoitzeko banakako fakturretan (II. Eranskina), errezeta guztiak zerrendatuko dira, eta honako datu hauek jasoko dira: zigilu-kupoiaren kode nazionala edo; hala badagokio, etiketa autoitsaskorraren edo zigiluaren kodea; fakturazio-prezioa eta erabiltzailearen ekarpena, bai eta hogeita bost errezetako bi pakete bakoitzeko baturak ere. Paketearen zenbakia fakturan sartuko da, eta hura osatzen duten errezeta sortaren zerrendaren aurretik jarriko da. Indarrean dagoen araudiak aipatzen dituen ekarpen murriztuko giza erabilerarako sendagaiak eta efektu eta osagarriak, kode nazionalaren lehen zifraren aurrean jarritako izartxo batekin markatuko dira.

Banakako faktura bakoitzaren amaieran, fakturatutako errezeta kopurua, fakturazio-prezioari jarraikiz duten zenbatekoa eta ekarpenen batura jasoko dira.

2.6.2. Lurralde Historiko bakoitzeko laburpen faktura (III. Eranskina)

Elkargo Ofizialek Lurralde Historiko bakoitzeko laburpen faktura batean jasoko dituzte dispentsazio modu bakoitzerako faktura indibidualen guztizkoak, erantsitako formatuaren arabera (III. Eranskina). Kontingente bakoitzeko laburpen-faktura bat egingo da.

Bereizita fakturatuko dira kontingente desberdinak:

1. Bisa gabeko FI sendagaien errezetak.
2. Bisa behar duten FI sendagaien errezetak.
3. Formula magistralen errezetak.
4. Banakako txertoen errezetak.
5. Efektu eta osagarrien errezetak, gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak izan ezik.
6. *Gaur egun ez dago halakorik
7. Zentro soziosanitarioei dispentsatu ez zaizkien gernu-inkontinentziarako xurgatzaileen errezetak.
8. Produktu dietetikoak.
9. Beste zenbait.

Bi alderdien adostasunez, itun honetan jasotako erregimenak eta kontingenteak fakturan aurkezteko modua aldatu ahal izango da.

2.6.3. Laburpen-faktura orokorra (IV. Eranskina)

Lurralde Historiko bakoitzeko laburpen fakturen guztizkoekin, faktura orokorrak egingo dira (IV-1, IV-2 eta IV-3 Eranskinak), honako hauek zehaztuta: errezeta kopurua, ontzi kopurua, fakturazio-zenbatekoa, ekarpen orokorra, aurretiazko gastua, araudiak edo lortutako akordioek zehazten dituzten deskontuak eta hobariak, eta errezeten azken gastua. Gainera, Eranskin osagarriak egingo dira: deskontuak IV-1A (823/2008 ED eta 8/2010 ELD), IV-1C (koordainketaren hileko mugengatiko ekarpen teorikoaren eta ekarpen errearen arteko diferentzia) eta IV-1D (farmazia-bulegoarekin elkarlana).

Bi alderdien adostasunez, Itun honetako fakturaren Eranskinen aurkezpena aldatu ahal izango da.

3. FAKTURAZIOAREN AURKEZPENA

3.1. PAPEREZKO ERREZETEN ETA ZIGILU-KUPOI ORRIEN AURKEZPENA

Farmazialarien Elkargo Ofizialek, 3.3 puntuan fakturak aurkezteko ezarritako dataren hurrengo 30 egunetan aurkeztuko dituzte paperezko errezeten eta zigilu-kupoi orrien originalak.

Paperezko errezetak eta zigilu-kupoi orriak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzek aukeratzeko duten lekuan entregatuko dira. Leku hori unitate horren hiri berean edo haren mugakide den udalerriri batean egongo da. Bertan egiaztatuko da, Elkargoak izendatzen duen pertsonaren aurrean, jasotako kaxak entrega-albaranarekin bat datozela, eta harrera-akta egingo da (VI. Eranskina). Jasotako dokumentazioa eta egiaztapenaren emaitza bilduko dira aktan.

Bereizita aurkeztuko dira:

- Zigilu-kupoi orriak, dispentsazio elektronikoen egiaztagiriri.

- Espezialitateen paperezko errezetak
- DUJ (premia larri justifikatua) paperezko errezetak
- Formula magistralen eta txertoen paperezko errezetak
- «Beste zenbait» paperezko errezetak: kanpaina sanitarioa, lan-istripuak, sindrome toxikoa

Itun honetan ezarritakoari jarraikiz, lege-xedapen baten edo alderdien arteko akordioaren baten ondorioz errezeten aurkezpena egokitu behar bada, egun ezarritako zerranda aldatu ahal izango da.

3.2. AURKEZTEKO MODUA

Errezeta elektronikoen kupoi-orriak berezita aurkeztuko dira, bereziki prestatutako ontzietan (edo kaxetan), 50eko taldeka elkartuta, eta fakturari dagokionez ez desordenatzeko moduan.

Errezeta elektronikoen kupoi-orrien kasuan, kaxen errotulazioan honako datu hauek jarriko dira: «errezeta elektronikoa», Farmazialarien Elkargo Ofizialaren Lurralde Historikoa, barnean dauden farmazia-bulegoen zenbakiak, fakturazio-hilabetea eta kaxaren ordena-zenbakia, hilabete horretako kaxen guztiarekiko. Azkenengo kaxan, gainera, «AZKENA» ipiniko da.

Paperezko errezetak berezita aurkeztuko dira, bereziki prestatutako ontzietan (edo kaxetan), 25eko taldeka elkartuta, eta fakturari dagokionez ez desordenatzeko moduan.

Elektronikoki inprimatutako TSIa duten Osakidetzako paperezko errezetak TSIa berezi gabeko pakete orokorretan aurkeztuko dira, baldin eta elektronikoki inprimatutako TSIa eta dispentsatzeko uneko TSIa bat badatoz.

Farmazia bakoitzeko paperezko gainerako errezetak TSI bakoitzerako bereiztutako paketeetan aurkeztuko dira.

DUJ errezetak kutxa/pakete bereizian joango dira.

Espezialitateen paperezko errezeten kasuan, kaxen errotulazioan honako datu hauek jarriko dira: «espezialitateen paperezko errezetak», Farmazialarien Elkargo Ofizialaren lurralde historikoa, barnean dauden farmazia-bulegoen zenbakiak, fakturazio-hilabetea eta kaxaren ordena-zenbakia, hilabete horretako kaxen guztiarekiko. Azkenengo kaxan, gainera, «AZKENA» ipiniko da.

DUJ paperezko errezeten kasuan, kaxen errotulazioan honako datu hauek jarriko dira: «DUJ paperezko errezetak», Farmazialarien Elkargo Ofizialaren lurralde historikoa, barnean dauden farmazia-bulegoen zenbakiak, fakturazio-hilabetea eta kaxaren ordena-zenbakia, hilabete horretako kaxen guztiarekiko.

Formula magistralen eta banakako txertoen paperezko errezeten kasuan, kaxen errotulazioan honako datu hauek jarriko dira: «formula magistralak eta txertoak, paperezko errezetak», Farmazialarien Elkargo Ofizialaren lurralde historikoa, barnean dauden farmazia-bulegoen zenbakiak, fakturazio-hilabetea eta kaxaren ordena-zenbakia, hilabete horretako kaxen guztiarekiko.

«Beste zenbait» paperezko errezeten kasuan, kaxen errotulazioan honako datu hauek jarriko dira: «beste zenbait, paperezko errezetak», Farmazialarien Elkargo Ofizialaren lurralde historikoa,

barnean dauden farmazia-bulegoen zenbakiak, fakturazio-hilabetea eta kaxaren ordena-zenbakia, hilabete horretako kaxen guztiarekiko.

Horrela, kaxa hauek izango ditugu (errotulazio-eredua, VII. Eranskina):

- Errezeta elektronikoen kaxak
- Espezialitateen paperezko errezeten kaxak
- DUJ paperezko errezeten kaxak
- Formula magistralen eta txertoen paperezko errezeten kaxak
- «Beste zenbait» paperezko errezeten kaxak: kanpaina sanitarioa, lan-istripuak, sindrome toxikoa

3.3. FAKTUREN AURKEZPENA

Laburpen-fakturak (III, IV-1, IV-2 eta IV-3 Eranskinak) eta horien osagarriak (IV-1A, IV-1C eta IV-1D Eranskinak) eta dagokien euskarri informatikoa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Farmazia Ikuskaritzan aurkeztuko dira, faktura dagokion hilabetearen hurrengo hilabeteko 11 baino lehen. Hilaren 10a larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean aurkeztu ahal izango dira.

3.4. EUSKARRI INFORMATIKOAK AURKEZTEA

Euskarri informatikoak fakturaren elementu tekniko baliokidetzat hartzen dira, eta haiek aurkeztea ezinbestekoa da faktura egiaztatzeko.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek honako hauek entregatuko dituzte Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzetan, fakturazio-hilabetearen hurrengo hilabeteko lehen hamar egunen barruan:

- Laburpen-fakturari dagokion euskarri informatikoa (III. Eranskina). Hilaren 10a larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean aurkeztu ahal izango da.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek honako hauek entregatuko dituzte Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzan, fakturazio-hilabetearen hurrengo hilabeteko lehen hamabostaldian:

- Lurralde bakoitzeko dispentsazio elektronikoen fakturazio-artxiboak (Euskadiko errezeta elektronikoko sistema).
- Interoperabilitateko dispentsazioen fakturazio-artxiboak lurralde bakoitzeko.
- Dispentsazio elektronikoko fakturazioen batuketak (Euskadiko errezeta elektronikoko sistema + interoperabilitatea) lurralde bakoitzeko.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek honako hauek entregatuko dituzte Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzetan, fakturazio-hilabetearen hurrengo hilabeteko lehen hogeita egunen barruan:

- Eranskin honetako 2.2 puntuan zehaztutako fakturazio CDa.
- Farmazia-bulego bakoitzeko banakako fakturak (II. Eranskina) dituen CDa. PDF formatuan egongo dira fakturak.
- Eranskin honetako 2.2 puntuan zehaztutako paperezko errezeta fakturatu guztien aurrealdearen irudi digitalizatuak dituzten lurralde bakoitzeko DVDak.

- Eranskin honetako 2.2 puntuan zehaztutako kupoi-orrien aurrealdearen irudi digitalizatuak dituzten lurralde bakoitzeko DVDak.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek zigilu-kupoi orriak eta fakturatu diren dispentsazio elektronikoak, interoperabilitatea barne, gurutzatuko dituzte, eta Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzan, fakturazio-hilabetearen hurrengo hilabeteko lehen hogeitun egunen barruan, honako hauek entregatuko dituzte:

- Eranskin honetako 2.2 puntuan definitutako lurralde bakoitzeko fakturazio CDak.
- Paperezko errezetei soilik dagozkien lurralde bakoitzeko fakturazio CDak.
- Kupoiekin uztartutako dispentsazio elektronikoaren fakturazio-artxiboak (Euskadiko errezeta elektroniko sistema) lurralde bakoitzeko
- Kupoiekin uztartutako interoperabilitateko dispentsazioen fakturazio-artxiboak lurralde bakoitzeko.
- Dispentsazioekin uztartutako kupoi-artxiboak lurralde bakoitzeko
- Kupoiekin uztartu ez diren dispentsazioen artxiboak lurralde bakoitzeko
- Dispentsazio bati uztartu ez diren kupoiaren artxiboak lurralde bakoitzeko.
- Interoperabilitateko igorle eta hartzaile artxiboak.

Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzek hala eskatzen dutenean, Farmazialarien Elkargo Ofizialek eta errezeten eta kupoi-orrien irudiak digitalizatzen dituen enpresak, irudiak jatorrizko errezetekin eta kupoi-orriekin bat datozela egiaztatzen duen ziurtagiri bat egingo dute.

Itun honetan ezarritakoari jarraikiz, lege-xedapen baten edo alderdien arteko akordioaren baten ondorioz euskarri informatikoen aurkezpena egokitu behar bada, egun ezarritako zerrenda aldatu ahal izango da.

3.5. EUSKARRI INFORMATIKOAK BALIOZKOTZEA.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak euskarri informatikoetan dagoen informazioa aztertuko du, eta tratamendu informatikoa eragozten duten akats teknikoak dituzten eta fakturazioarekin bat ez datozen euskarriak baztertu egingo ditu.

Euskarri informatiko okerrak atzera bota direla jakinarazi eta gehienez ere 10 eguneko epean zuzenduko dira. Euskarri informatiko zuzendua, eta, hala badagokio, faktura berria, Farmazialarien Elkargo Ofizialek, atzera bota direnetik gehienez ere 15 eguneko epean entregatuko dituzte. Laburpen-faktura orokorrari eragiten badio eta epe horretan zuzendu ez bada, 30 egun arte atzeratu ahal izango da hurrengo fakturaren ordainketa.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzek euskarri informatikoetan grabatutako datuak eta dagozkien errezetetan jasotakoak bat datozela egiaztatuko dute. Grabazio akatsik antzemanaz gero, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta euskarri horiek, antzemandako akatsak zuzentzeko, Farmazialarien Elkargo Ofizialei itzultzea erabaki ahal izango da.

4. FAKTURAZIOAREN BERRIKUSTEA

4.1. ERREZETEN ETA IRUDIEN BERRIKUSTEA

Farmazia Ikuskaritzek Farmazialarien Elkargoek aurkeztutako fakturazioa eta Itun honetan tipifikatutako baliogabetasun-arrazoiak direla eta egiaztapen horren ondorioz sor daitezkeen aldeak egiaztatuko dituzte. Aldeak farmazia-bulego mailan zehaztuko dira, eta dagokion Elkargoari jakinaraziko zaizkio fakturazio-hilabetearen ondorengo bost hilabeteetan.

Elkargoek epe bera izango dute fakturazioan atzemandako akatsak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzei jakinarazteko.

4.1.1. Itzulketa-prozedura

Itzulketari dagokionez, ondorio guztietarako baliozkotzat joko dira paperezko errezeten eta kupoi-orrien aurrealdearen Farmazialarien Elkargo Ofizialek emandako irudi digitalizatuen artxibotik lortutako kopiak.

Erabateko baliogabetasuna, baliogabetasun partziala eta baliogabetasun zuzengarria duten errezetak bereizi egingo dira.

Erabateko baliogabetasuna edo baliogabetasun partziala duten errezeten kasuan, errezetaren aurrealdearen kopia bidaliko zaio dagokion Elkargoari, eta jatorrizkoa Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzaren esku geratuko da.

Baliogabetasun zuzengarria duten paperezko errezeten kasuan, jatorrizkoak Farmazialarien Elkargo Ofizialera bidaliko dira, bete eta ondoren likidatzeko, eta aurrealdearen eta atzealdearen kopia lurralde-ordezkaritzaren esku geratuko da, ondoren egiaztatze aldera.

Errezeta zuzengarriak baliogabetzea eragin zuten akatsak zuzendu ondoren, eta Osasun Sailak itzuli eta 60 eguneko epean (A eranskineko 6. puntua), Farmazialarien Elkargo Ofizial bakoitzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzari aurkeztuko dizkio, kargu-oharrarekin. Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, hurrengo fakturan ordainduko da.

Ez da berriro grabatuko errezeta zuzengarri baliogaberik.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek dokumentazio hori eskuratu ahal izango dute, eta, kasua bada, jatorrizko errezetak edo irudiak ikustea eskatu ahal izango dute.

4.1.2. Diferentziak fakturazioan.

Fakturazioaren zenbatekoari eragiten dioten fakturazio-akatsak, kargu edo abonu oharren bidez zuzenduko dira egoki diren egiaztapenak egin eta akatsa agiri bidez egiaztatu ondoren. Horretarako, errezetak dispentsazioaren identifikazio kodearen bidez (errezeta elektronikoa) edo errezeta-kodearen bidez (paperezko errezeta) identifikatuko dira.

4.1.3. Antzemandako desberdintasunak izapidetzea

Farmazia Ikuskaritzak antzemandako diferentziak jakinaraziko dizkio dagokion Farmazialarien Elkargo Ofizialari, eta, horretarako, honako hauek bidaliko dizkio: erabateko baliogabetasuna edo baliogabetasun partziala duten errezeten kopiak, V.Eranskina behar bezala beteta eta zuzengarriak diren jatorrizko errezetak.

Dagozkien egiaztapenak egiteko Farmazia Ikuskaritzek, gutxienez fakturazio-hilabetearen ondorengo bost hilabetez, errezetak farmazia-bulego arabera ordenatuta gordeko dituzte.

Farmazialarien Elkargo Ofizialek V. Eranskinean errezeten erregularizazioan akatsak atzematen badituzte, Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzari jakinaraziko diote, V. Eranskinean jasotako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren sinadura eta zigilu-dataren ondorengo hiru hilabeteen barruan. Horretarako, dispentsazio identifikazio kodearen (errezeta elektronikoa) edo errezeta-kodearen (paperezko errezeta) bidez, eta dagokien V. Eranskinaren hilabetearen arabera identifikatuko dira errezetak .

Aldeak hauteman direlako eztabaidan dauden errezeten irudiak, eztabaida ebatzi arte Lurralde Ordezkaritzak gordeko ditu .

Aldeak dituzten errezeten inguruan egin behar diren egiaztapen guztietan, Lurralde Ordezkaritzaren esku egongo diren itzultitako errezeten jatorrizkoak edo kopiak erabili ahal izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoak aztertu beharreko errezeten jatorrizkoak edo kopiak bidaliko dituzte Farmazia Lurralde Batzordeek, errezeta gehiegi diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan nahikoa izango da errezeta horien lagin adierazgarri bat bidaltzea.

4.1.4. Alegazioak eta errekurtsioak

Farmazia-bulegoak ez badaude ados Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Batzorde Mistoaren irizpenekin, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordeari, ebazpena eman zuen batzordearen bidez, eta haren idazkaritzak aktarekin batera aurkeztuko du.

5. FAKTURAZIOAREN KALITATE-KONTROLA

Farmazialarien Elkargo Ofizialek eta Osasun Sailak, bakoitzak bere eskumenen esparruan, Eranskin honetan ezarritako fakturazio prozeduraren kalitatea zaintzeko konpromisoa hartzen dute, eta, ekimen propioz egindakoaz beste, bere gain hartzen dute sistematikoki laginketa bidezko kalitate-kontrola egitea: Eranskin honetako 2.1 puntuan aipatzen diren datu eta irudi guztiak behar bezala grabatu zirela egiaztatuko dute laginean, eta antzemandako gorabeheren berri emango dute.

Errezeten datuak irakurtzea eragozten duten dispentsazioari eta fakturazioari egotz dakizkiekeen zailtasunak badaude, Farmazialarien Elkargo Ofizialek akats horiek konpontzeko eta 2.1. puntuan bildutako eremu guztiak betetzeko mekanismoak ezarriko dituzte.

I. ERANSKINA

ERREZETAKO ETIKETA AUTOITSASKORREN EREDUA

25 mm	34 mm
	<p>ESTRAKTUAK ETA BAKUNAK 500009</p> <p>PSP_____</p>
	<p>FORMULA MAGISTRALAK (ekarpen murriztua) 500058</p> <p>PSP_____</p>
	<p>FORMULA TOPIKOAK (ekarpen normala) 500001</p> <p>PSP_____</p>

I. ERANSKINA

AHOTIKO FORMULA
LIKIDOAK
(ekarpen normala)
500002

PSP_____

AHOTIKO FORMULA
SOLIDOAK
(ekarpen normala)
500003

PSP_____

FORMULA ESTERILAK
(ekarpen normala)
500004

PSP_____

FORMULA MAGISTRAL
ELEKTRONIKOA

KODEA_____

II. ERANSKINA

XXXXXko Lurralde Historikoa OSAKIDETZA II. ERANSKINA Orrialdea:

XXXXXXXX faktura (001,002, TSI banaketarik gabe, etab.) Data

Farmazia zk. xx xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxxxxx

E. KODE ZK. EKAR. PSP	E. KODE ZK. EKAR. PSP	E. KODE ZK. EKAR. PSP	E. KODE ZK. EKAR. PSP
1. eta 2. paketeak	9000 eta 9001 paketeak	900 eta 9003 paketeak	9004 eta 9005 paketeak

-
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19
- 20
- 21
- 22
- 23
- 24
- 25

PG (paketea guztira)

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19
- 20
- 21
- 22
- 23
- 24
- 25

PG (paketea guztira)

XXXXXko Lurralde Historikoa OSAKIDETZA II. ERANSKINA Orrialdea:
XXXXXXX faktura (001,002,TSI banaketarik gabe, etab...) Data
Farmazia zk.

GUZTIRA EKARPEN NORMALA EKARPEN MURRIZTUA

Zenbatekoa fakturazio-prezioan
Ekarpen orokorra

Aurretiazko gastua
Errezeten kopurua, guztira

III. ERANSKINA

III. ERANSKINA xxxxxxKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA OSAKIDETZA Or. XXXX. URTEKO
XXXXXX(E)KO TSI XXXX XXXXX(E)KO FAKTURAZIOAREN LABURPENA

Farmazia Errezetak PSPa guztira Ekar.teorikoa Likid. guztira

Guztira XXXXXXXX (Adb: ikus-onespenik gabeko FI send. TSI 003)

OSASUN SAILA
Administrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
Farmazia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO SALUD
Viceconsejería de Administración y
Financiación Sanitarias
Dirección de Farmacia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IV. ERANSKINA

xxxxxx(E)KO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA LABURPEN-FAKTURA OROKORRA HILABETEA
URTEA IV-1. ERANSKINA

Dispentsazioa eta erregimenak	Errezeta kopurua	Zigilu kopurua	Fakturazio prezioan guztira	Ekarpen. orok.	Aurret iazko gastua	823/2008 ED	8/2010 ELD	Farm.-bul. elkarlana	Erabiltz. ekarpen teorikoa- ekarpen erreala diferentzia	Azken gastua
Ikus- onespenik gabeko sendagaiak	FI									
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:										
Ikus- onetsitako sendagaiak	FI									
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:.....										
FI sendagaiak guztira										
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:.....										



xxxxxx(E)KO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA
URTEA IV-2. ERANSKINA

LABURPEN-FAKTURA OROKORRA HILABETEA

Dispentsazioa eta erregimenak	Errezeta kopurua	Zigilu kopurua	Fakturazio prezioan guztira	Ekarpen. orok.	Aurretiako gastua	823/20 08 ED	8/2010 ELD	Farm.-bul. elkarlana	Erabiltz. Ekarpen teorikoa-ekarpen. errealaren diferentzia	Azken gastua
Efektu eta osagarriak (xurgatzaileak izan ezik)										
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:.....										
FORMULA MAGISTRALAK										
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:.....										
BANAKAKO TXERTOAK										
TSI 001										
TSI 002										
TSI 003										
TSI 004										
TSI 005										
Lan-istripuak										
BATURAK:.....										
BESTE ERREGIMENETAKO DISPENTSAZIOAK										
Sindrome toxikoa										
Kanpaina sanitarioa										
BATURAK:.....										



xxxxxx(E)KO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA
URTEA IV-3. ERANSKINA

LABURPEN-FAKTURA OROKORRA HILABETEA

Dispentsazioa eta erregimenak	Erreze ta kopuru a	Zigilu kopurua	Fakturaz io prezioan guztira	Ekarpe n. orok.	Aurret iazko gastua	823/20 08 ED	8/2010 ELD	Farm.-bul. elkarlana	Erabiltz. Ekarpen teorikoa- ekarpen. erreala diferentzia	Azken gastu a
-------------------------------------	-----------------------------	-------------------	---------------------------------------	-----------------------	---------------------------	-----------------	---------------	-------------------------	---	---------------------

DIETAK

XURGATZAILE
ANBULATORIOAK

TSI 001
TSI 002
TSI 003
TSI 004
TSI 005
Lan-istripuak

BATURAK:.....

GUZTIRAKO OROKORRA

AMAIERAKO GUZTIRAKOA

INFORMAZIO GISA:

	OINARR IA	+BEZ	-8/2010 ELD*	- 823/200 8 ED*	-Farm.-bul. elkarlana	-Ekarpena	+ Ekarpenaren diferentzia	Azken gastua
% 4								
% 10								
% 21								
GUZTIRA								

* BEZik gabe aplikatutako deskontuak

XXXX(e)ko fakturazioak barne hartzen dituen egunak:

**ERANSKIN GEHIGARRIAK: IV-1A, IV-1C ETA IV-1D**

xxxxxxx(e)ko Farmazialarien Elkargo Ofiziala HILABETEA URTEA
IV-1A eranskina

LABURPEN OSAGARRIA GUZTIRA

Farmazia	IF sendagaien fakturazio-prezioa	8/2010 LED kenkaria	823/2008 ED kenkaria
----------	-------------------------------------	---------------------	-------------------------

GUZTIRA

xxxxxxx(e)ko Farmazialarien Elkargo Ofiziala HILABETEA URTEA
IV-1C eranskina

LABURPEN OSAGARRIA GUZTIRA

arteko diferentzia Koordainketaren Ekarpen teorikoaren - ekarpen errealaren

Farmazia

GUZTIRA

xxxxxxx(e)ko Farmazialarien Elkargo Ofiziala HILABETEA URTEA
IV-1D eranskina

FARMAZIA-BULEGOAREKIN
ELKARLANA

Farmazia	PSP BEZ	Farmazia- bulegoarekin elkarlana
----------	---------	--

GUZTIRA

V. ERANSKINA

_____ (e)ko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza

ERREZETEN FAKTURAZIOAN IKUSITAKO DIFERENTZIAK

_____. URTEKO _____ (E)AN APLIKATUA FARMAZIA ZK. _____

KONTINGENTEA _____ ERREGIMENA _____

HILABETE A	URTEA	ERREZETA KOPURUA	ITZULKETA GAKOA	LOKALIZA- TZAILEA	ZENBATEKO FAKTURATUA	EKARPEN FAKTURATUA.	ZENBATEKO EGIAZTATUA	EKARPEN EGIAZTATUA.	SALDOA
---------------	-------	---------------------	--------------------	----------------------	-------------------------	------------------------	-------------------------	------------------------	--------

FARMAZIA-BULEGOAREN SALDOA, GUZTIRA €

SALDOA GUZTIRA €:



VI. ERANSKINA

ERREZETEN HARRERA-AKTA

_____ hilabeteko fakturazioa

Errezeta elektronikoen kaxak	
Espezialitateen paperezko errezeten kaxak	
DUJ paperezko errezeten kaxak	
Formula magistralen eta txertoen paperezko errezeten kaxak	
«BESTE ZENBAIT» paperezko errezeten kaxak	
JASOTAKO KAXAK, GUZTIRA	

Egiaztapenaren emaitza:

OHARRAK:

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

-----ko Osasun Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritza	_____ ko Farmazialarien Elkargo Ofiziala
Sinadura	Sinadura



VII. ERANSKINA

KAXEN ERROTULAZIO-EREDUA

ERREZETA ELEKTRONIKOA

FEO: HILABETEA:
FARMAZIA ZK.:
KUTXA ZK. GUZTIRA

ESPEZIALITATEEN PAPEREZKO ERREZETAK

FEO: HILABETEA:
FARMAZIA ZK.:
KUTXA ZK. GUZTIRA

DUJ PAPEREZKO ERREZETAK

FEO:..... HILABETEA:
FARMAZIA ZK.:
KUTXA ZK. GUZTIRA

**FORMULA MAGISTRALEN ETA BANAKAKO TXERTOEN
PAPEREZKO ERREZETAK**

FEO:..... HILABETEA:
FARMAZIA ZK.:
KUTXA ZK. GUZTIRA

«BESTE ZENBAIT» PAPEREZKO ERREZETAK

FEO: HILABETEA:
FARMAZIA ZK.:
KUTXA ZK. GUZTIRA

D ERANSKINA

ORDAINKETA PROZEDURA

1. Laburpen-fakturak (III, IV-1, IV-2 eta IV-3 Eranskinak), horien osagarriak (IV-1A, IV-1C eta IV-1D Eranskinak) eta dagokien euskarri informatikoa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Farmazia Ikuskaritzan aurkeztuko dira, fakturretan agertzen den hilabetearen hurrengo hilabeteko 11 baino lehen. Hilaren 10a larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean aurkeztu ahal izango dira.

Salbuespenezko eta erabat justifikatutako kasuetan bakarrik onartuko dira aurkezpen-atzerapenak, eta ordainketa atzerapen horien neurri berean atzeratuko da.

Halaber, euskarri informatikoak C Eranskinean adierazitako epeen barruan aurkezten ez badira, hurrengo hileko ordainketa data neurri berean atzeratu ahal izango da.

2. Farmazialarien Elkargo Ofizialek hileroko jakinaraziko diote posta elektronikoz Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari fakturaren zenbatekoa, Osasun Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzan hileko laburpen-faktura aurkezten duten egunean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, hilaren 15etik 20ra bitartean, transferentzia-aginduak emango ditu Elkargo bakoitzaren faktura ordaintzeko, baldin eta faktura garaiz eta behar bezala jaso bada eta beharrezko diren baliozkotzeak eta egiaztapenak egin badira.

Transferentzia-aginduan atzerapenik gertatuz gero, konpentsazio gisa, ordainketa aurreratu egingo da hurrengo fakturazioetan.

3. Fakturak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari fakturazioari dagozkion eta ordainketa-frogagiri diren C Eranskinean zehaztutako paperezko errezetak, kupoi-orriak eta euskarri informatikoak entregatu behar zaizkio.

Euskarri informatikoak fakturaren elementu tekniko baliokidetzat hartzen dira, eta ezinbestekoak dira faktura egiaztatzeko, fakturazioaren C Eranskineko 3.4 puntuan ezarritakoaren arabera.

4. Aurreko apartatuan aipatutako laburpen-fakturaren ordainketa «kontura» egindakotzat joko da, eta, beraz, informazioaren tratamendutik eta egiaztapenetatik lortzen diren zenbatekoen menpe egongo da, fakturazioari buruzko C Eranskinean xedatutako moduan eta baldintzetan.

5. Lapurreten, suteen, uholdeen, leherketen edo eraisteen ondorioz, fakturazio-prozedura amaitu baino lehen, farmazia-bulegoan edo fakturazio prozesuko garraioan, paperezko errezetak eta kupoi-orriak hondatzen edo galtzen badira, farmazia-bulegoko titularrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari apartatu honetan ezarritako kopuruak ordain ditzala eskatu ahal izango dio. Horretarako, ezinbestekoa izango da ezbeharrak gertatu aurretik aseguru-kontratu bat hitzartuta izatea, paperezko errezeten kontingentzia horiek estaltzeko.

Osasun Sailari ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio ezbeharrak. Kaltetutako kupoi-orriak eta errezetak zalantzarik gabe zein egunetakoak diren jakinarazi beharko da.

Errezetak galdu edo hondatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da eskaera. Bertan, honako datu hauek jasoko dira: galera edo narriadura zerk eragin duen, kaltetutako errezetak noizkoak diren eta, jakinez gero, errezeta kopurua eta hauen zenbatekoa.

Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

- a) Alegatutako gertaerak benetakoak direla ziurtatzen duen kaltetutako farmazia-bulegoaren udalerriko udaltzaingoak edo agintaritza eskudunak emandako ziurtagiri bat.
- b) Kaltetutako paperezko errezeten eta kupoi-orrien hondarrak. Halakorik ez badago, hori jasotzen duen Farmazialarien Elkargo Ofizialaren ziurtagiri batek ordeztuko ditu.
- c) Izanez gero, kaltetutako errezeten erregistroak dituen euskarri informatikoa.
- d) Paperezko errezeten eta kupoi-orrien galera lapurreta baten ondorio denean, ondorengo 3 egun baliodunetan jarritako polizia-salaketa edo salaketa judizialaren kopia.
- e) Farmazia-bulegoko kalteen aseguru hitzartuta duen aseguru-etxeak (edo etxeek) egindako ziurtagiri bat. Ziurtagiri horretan adieraziko da ea jazotako gertaerak eta/edo paperezko errezeten eta kupoi-orrien galera edo narriadura polizak edo Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoak estaltzen dituen ala ez, eta, horrez gain, hitzartutako estalduren gehieneko zenbatekoa jakinaraziko da.
- f) Farmazialariak Aseguru Etxeari aurkeztutako erreklamazioaren eta honen erantzunaren kopia bana.
- g) Idatzizko konpromisoa, Farmazialarien Elkargo Ofizialak berretsia, paperezko errezetak eta kupoi-orriak galdu edo hondatzeagatik jasotako edozein jatorritako kalte-ordain ekonomikoak Osasun Sailari itzultzeko (Aseguru Etxea, Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoa, terrorismoaren biktimentzako laguntzak, egitatearen egileen edo behartutako beste hirugarren batzuen erantzukizun zibila, etab.), kontzeptu beragatik ordaindu zaion gehieneko zenbatekora arte.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kaltetutako errezeten zenbateko osoa egiaztatuko du.

a. Paperezko errezetak hondatzea edo galtzea:

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ez du inolako kopururik ordainduko paperezko errezetak galdu edo hondatzeagatik.

b. Kupoi-orriak hondatzea edo galtzea:

Osasun Sailak ez ditu baliogabetuko ezbeharraren aldiaren erregistratutako dispentsazio elektronikoei dagozkien zigilu-kupoirik gabeko dispentsazioak. Farmazialarien Elkargo Ofizialak Osasun Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzara bidaliko ditu ezbeharraren aldiaren dispentsatutako dispentsazio identifikazio kodeei (ID) zalantzarik gabe lotutako deskoadratzeen zerrenda, eta ezbeharraren aldiko dispentsazioei lotuta ez dauden deskoadratzeen zerrenda. Ezbeharraren aldiko dispentsazioei lotuta ez dauden deskoadratzeak baliogabetu egin ahal izango dira.

Apartatu honetan ezbeharrari lotuta egoteagatik baliogabetu ez diren deskoadratzeentzat ezartzen diren kenkariak Osasun Sailak erregularizatu egingo ditu .

Osasun Sailak honako kenkari hauek aplikatuko dizkie kaltetutako aldiko dispentsazio elektronikoei lotuta egoteagatik baliogabetu ez diren deskoadratzeei:

- Erabiltzaileen ekarpenari dagokion zatia.
- Farmazia-bulegoak une bakoitzean Osasun Sailari aplikatzen ari zaizkion deskontuen zenbatekoa.
- Kaltetutako aldiko egunetako errezeta elektronikoei aplikatuko litzaizkiekeen baliogabetzeen zenbateko zenbatetsia. Horretarako, aurreko 12 hilabeteetan farmaziari V. Eranskinaren bidez fakturan aplikatutako baliogabetze guztien eguneko batez besteko zenbatekoa kalkulatu da, kalkulu horretarako farmazia aldi horretan irekita egon zen egunak kontuan hartuta.

Ezbeharra gertatu eta hurrengo hilabeteetan Osasun Sailak kontrol berezia egingo die kaltetutako farmazia bulegoaren fakturazioei. Epe horretan ustez suntsitutako edo hondatutako paperezko errezetak edo kupoi-orriak detektatzen badira, errezeta horiek ez dira ordainduko, eta ezbeharrarekin lotutako farmaziako deskoadratze guztiak baliogabetuko dira. Zenbateko horiek fakturaren V. Eranskinean erregularizatu ahal izango dira, nahiz eta itun honen C eranskinean fakturazioa berrikusteko ezarritako epeak gainditu.

6. Fakturazio-prozedura amaitu eta paperezko errezeten eta kupoi-orrien irudiak lortu ondoren, prozesuan paperezko errezetak eta kupoi-orriak galtzen edo hondatzen badira, farmazia-bulegoek, Farmazialarien Elkargoaren bitartez, errezeta eta kupoi horiek ordaintzeko eskatu ahal izango diote Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari. Irudi horiek ordainketaren frogagiri gisa erabili ahal izango dira.

E ERANSKINA

PRODUKTU DIETETIKOAK

Eranskin honen bidez, produktu dietoterapiko konplexuak eta etxeko nutrizio enterala Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatzea erregulatuko duten baldintzak arautzen dira, baita Osasun Sistema Nazionalaren prestazioaren apartatu hau hitzartzeko baldintza ekonomikoak ere. Prestazio hori eta haren edukia indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko dira.

EZAUGARRI OROKORRAK

Produktu dietoterapiko konplexuak eta etxeko nutrizio enterala paziente ambulatorioei dispentsatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan dietoterapikoak dispentsatzeko jarraibideak onartzen dituen Osasun Sailburuordearen 2008ko apirilaren 21eko Ebazpena kontuan hartuko da.

Osasun Sistema Nazionalaren prestazioaren parte izanik, paziente ambulatorioei Euskal Osasun Sistemako medikuek preskribatzen badizkiete, eta dispentsatu aurretik Osasun Sailaren ikus-onespena badute soilik dispentsatu ahal izango dira Osasun Sailaren kontura produktu dietoterapiko konplexuen eta etxeko nutrizio enteralaren preskripzioak. Produktu horiek Osasun Ministerioaren produktu dietetikoaren hileroko Izendegian daude islatuta.

Eranskin honen edukiak ez du barnean hartzen Osasun Sailaren aseguramenduko informazio-sisteman zentro soziosanitarioetako egoiliar gisa markatutako pazienteei produktu dietoterapiko konplexuak eta etxeko nutrizio enterala dispentsatzea.

Berariazko erregulazioa egiten ez den bitartean, preskripzio-dokumentu ofiziala Osakidetzako mediku-errezeta izango da.

Ez dira finantzatuko Osasun Sistema Nazionala kudeatzen duten beste erakunde batzuen mediku-errezetak.

Preskripzio bakoitzeko, gehienez ere produktu beraren lau ontzi dispentsatu ahal izango dira, hilabeteko tratamendua gainditu gabe.

Preskribatutako produktuaren orde, fakturazioko Izendegi ofizialean izen bera duen beste produktu bat baino ezin izango da dispentsatu, eta zaporea ordeztu ahal izango da.

Onuradunak ez du ekarpenik ordainduko produktu horiengatik.

FAKTURAZIOA

Produktu horien fakturazioa Itun honen C eranskinean adierazten den moduan egingo da, eta hileko Izendegian produktu bakoitzerako agertzen den kode eta fakturazio prezioarekin bat etorritik.

F ERANSKINA

GERNU INKONTINENTZIARAKO XURGATZAILEAK

Eranskin honen bidez, gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura dispentsatzeko baldintzak arautzen dira, bai eta farmazia-prestazioaren apartatu hau hitzartzeko baldintza ekonomikoak ere, erabiltzailearen beharretara egokitutako prestazioa eta gastu sanitarioaren arrazionalizazioa eta murrizketa lortzeko helburuarekin.

Eranskin honen edukiak ez du barnean hartzen Osasun Sailaren aseguramenduko informazio-sisteman zentro soziosanitarioetako egoiliar gisa markatutako pazienteei gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak dispentsatzea.

PRESTAZIO FARMAZEUTIKOAN SARTUTAKO XURGATZAILEAK

Osasun Sailaren funtsekin finantzaturako eta paziente anbulatorioei dispentsaturako gernu-inkontinentziarako xurgatzaileek zigilu-kupoa izan beharko dute, eta alta emanda egon beharko dute Izendegi ofizialean.

Gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak Itun honen A Eranskinean adierazitakoaren arabera dispentsaturako dira. Errezetek zerbitzu sanitarioen ikuskaritza bisa izan beharko dute.

Preskribaturako produktua talde terapeutiko berekoa den beste batekin bakarrik ordeztu ahal izango da.

FAKTURAZIOA

Produktu horien fakturazioa itun honen C Eranskinean adierazten den moduan egingo da, eta hileko Izendegi ofizialean produktu bakoitzerako agertzen den kode eta fakturazio prezioarekin bat etorritik.

G ERANSKINA

INHALAZIO-GANBERA PEDIATRIKOAK

Eranskin honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura inhalazio-ganbera pediatrikoak (zigilu-kupoirik gabekoak) dispentsatzeko baldintzak arautzen dira, bai eta prestazio hori hitzartzeko baldintza ekonomikoak ere.

Baimendutako inhalazio-ganbera pediatrikoak Osasun Sailaren funtsen kontura finantzatu dira.

BAIMENDUTAKO INHALAZIO-GANBERA PEDIATRIKOAK

Honako hauek dira Osasun Sailaren funtsekin finantzatzeko baimendutako inhalazio-ganbera pediatrikoak:

INHALAZIO-GANBERA PEDIATRIKOAK			
KN	EAN	DESKRIBAPENA	GEHIENEO FINANTZAKETA-PREZIOA
161364	8470001613646	BABYHALER	40,07 €
169607	8470001696076	AEROCHAMBER PLUS PEDIATRIKOA	38,50 €
169599	8470001695994	JAIOBERRIENTZAKO AEROCHAMBER PLUS	38,50 €
163563	0383735798221	OPTICHAMBER DIAMOND JAIOBERRIENTZAKO MASKARAREKIN	38,48 €
163564	0383735798252	OPTICHAMBER DIAMOND HAURENTZAKO MASKARAREKIN	38,48 €

Kode nazionalen zerrenda eta gehieneko finantzaketa-prezioak Farmazialarien Elkargo Ofizialen eta Osasun Sailaren arteko akordio bidez eguneratu ahal izango dira.

ZIGILU-KUPOIRIK GABEKO INHALAZIO-GANBERA PEDIATRIKOAK FINANTZATZEKO ETA FAKTURATZEKO BALDINTZAK

Osasun Sailaren kontura dispentsatu ahal izateko, zigilu-kupoirik ez duten inhalazio-ganbera pediatrikoen preskripzioa Osakidetzako mediku-errezeta ofizialean edo Osakidetzako preskripzio elektronikoan egingo da, eta dispentsatu aurretik Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren baimena beharko da.

KODE NAZIONALA ageri duen ontziaren kartoi ebakina gehitu beharko da paperezko errezetan edo kupoi-orrian.

Errezeta bakoitzeko ontzi bakarra dispentsatu ahal izango da, eta pazienteari ekarpen murriztua kobratuko zaio.

Errezetak efektuen eta osagarrien kontingentean fakturatuko dira.

Ikuskaritzaren ikus-onespena egiteko beharrezko diren irizpideak, informazio gisa aipatuak, honako hauek dira:

1. Diagnostikoa: haurren asma edo bronkiolitisa.
2. Haurraren adina:
 - a) Bronkiolitisa: 0-2 urte beteak
 - b) Asma: 0-4 urte beteak
3. Mediku preskriptorea: pediatra, haurren pneumologoa edo alergologoa.
4. Paziente bakoitzari inhalazio-ganbera pediatriko bakarra preskribatzea baimentzen da. Osasun Sailak ganbera bakarra finantzatuko du pazientearen bitzta osoan.